

BIGARREN HEZKUNTZARAKO UNITATE DIDAKTIKOA

Nafarroako Parlamentua

Irakasleentzako Gida Didaktikoa

José Ignacio Juanbeltz Martínez / Rubén Riancho Andrés



PARLAMENTO DE NAVARRA
NAFARROAKO PARLAMENTUA

«Demokrazia de gobernu-sistematik okerra, kontuan hartzen ez badira saiatuak izan diren gainerako sistema guzriak»

Winston Churchill, Erresuma Batuko lehen ministroa (1940-45, 1951-55)

Izenburua Nafarroako Parlamentua. Irakasleentzako Gida Didaktikoa
Bigarren Hezkuntzarako Unitate Didaktikoa

Egileak José Ignacio Juanbeltz Martínez eta Rubén Riancho Andrés

Itzulpena Ander Arana Bareño, Xabier Aristegieta Okiñena, Ainhoa Irazustabarrena Barriola,
Mikel Iriarte Zilbeti eta Ander Irizar Apaolaza

Argitalpena Nafarroako Parlamentua,
Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuaren laguntzarekin

Diseinua KEN

Aurkibidea

Unitate Didaktikoaren aurkezpena **7**

Testuingurua eta Unitate Didaktikoak Hezkuntzaren
Lege Organikoarekin duen zerikusia: gaitasunak **9**

Prozesu didaktikoa **17**

Oinarrizko asmoa **25**

Edukiak **27**

Ariketen mapa eta garapenari buruzko gida **33**

Aniztasuna **41**

Ebaluaziorako irizpideak eta prozedurak **43**

Bibliografia eta informazio-webguneak **47**


Unitate Didaktikoaren aurkezpena

Unitate didaktiko honen helburua Nafarroako Parlamentua ezagutzea da: legebiltzararen osaera, eskumenak eta funtzionamendua.

- Hura garatuz, honakoak bilatzen ditugu:
- Lehenbizi, errealitate sozial eta politikoaren zati bat ikasgelako bizitzarekin lotzea.
- Bigarrenik, eskola garaitik modu arduratsuan parte hartzen ikastea, etorkizuneko herritarrak prestatzeko balio baitu. Esan nahi du balio demokratikoekin bat datozen bizikidetasun arauak eraikitzea, onartzea eta praktikatzeari; eskubideez, askatasunez, erantzukizunez eta betebeharrak zibikoez baliatzea; eta gainerakoen eskubideak defendatzea.
- Unitate Didaktikoak, halaber, irakaskuntzaren kalitatea hobetzea bilatzen du. Praktikan kokatu nahi ditu Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikotik heldu diren curriculumak; izan ere, haietan, oinarrizko zortzi gaitasunen garapenak orientabideak ematen dizkie ikasleei beren gaitasunak zabal ditzaten.

Ondoren, unitate didaktiko hau osatzen duten material guztiak aipatuko ditugu. Irakasleen eta ikasleen eskura daude Parlamentuaren Ikasgela Birtualean (Nafarroako Parlamentuaren webgunea eta gida honi erantsitako DVDa).

AURKEZTEN DITUGUN MATERIALAK



Gida Didaktikoak honako lanak jasotzen ditu:

- Testuingurua eta Unitate Didaktikoak Hezkuntzaren Lege Organikoarekin duen zerikusia: hezkuntza gaitasunak.
- Prozesu didaktikoa.
- Oinarrizko asmoa.
- Edukiak.
- Ariketen mapa eta garapenari buruzko gida.
- Aniztasuna.
- Ebaluaziorako irizpideak eta prozedurak.

Gidarekin batera, bibliografia bat ere badago, eta webguneen zerrenda bat, informazioak zabaltzeko.

ESKAINTZEN DIREN IBILBIDEAK

Lan honi ekiteko, hasieratik argi utzi behar da ariketak ibilbide desberdinen arabera antola daitezkeela, unitatea lantzeko hartu den lanaren arabera eta ikasleen mailaren arabera.

Horregatik, Ariketen Mapan azaldutako ariketei dagokienez, hiru ibilbidetan zehar eskaintzen diren aukerak argitu behar ditugu. Ibilbideak honakoak dira:

GUTXIENKO IBILBIDEA

Ondokoetan aurkeztutako jarduerak osatzen dute ibilbide hau:

Gutxieneko Ibilbidea

Koaderno honek aukera ematen du Nafarroako Parlamenturako Lan-irtenaldi bat egiteko eta ezagupenak sailkapeneko, azterketako, sintesiko eta ebaluazioko bost ariketa eginez osatzeko.

GUTXI GORABEHERA BEHAR DIREN DENBORAK:

LAN IRTENALDIA: GOIZ BAT.

IKASGELAKO ARIKETAK:
LAN IRTENALDIAREKIN ETA
GUTXIENKO IBILBIDEAREKIN
ZERIKUSIA DUTENAK: SEI ETA
BEDERATZI SAIO BITARTE.

OINARRIZKO IBILBIDEA

Ondokoetan aurkeztutako jarduerak osatzen dute ibilbide hau:

Oinarrizko Ibilbidea

Ibilbide hau Gida Didaktikoko ariketen mapan agertzen da azaldurik. Ikaslearen Lan-koadernoak hamaika ariketa zenbakidun ditu.

Nafarroako Parlamentuari buruzko ikuspegi oso bat edukitzeko gehien gomendatzen dugun ibilbidea da.

Horrek berarekin dakar Ikaslearen Lan-koadernoko zortzi ariketa egitea (1etik 8rainoko zenbakiekin adieraziak).

Nafarroako Parlamenturako lan irtenaldia ere sar daiteke, eta ezagupenak sailkapeneko, azterketako, sintesiko eta talde-lanari buruzko ebaluazioko hamaika ariketa eginez osa daitezke.

GUTXI GORABEHERA BEHAR DIREN DENBORAK:

LAN IRTENALDIA: GOIZ BAT.

IKASGELAKO ARIKETAK:
IRTENALDIARI ETA OINARRIZKO
IBILBIDEARI DAGOKIENEZ: BEDERATZI
EDO HAMABI SAIO.

SAKONTZEKO IBILBIDEA

Ondokoetan aurkeztutako jarduerak osatzen dute ibilbide hau:

Sakontzeko Ibilbidea. Dena Libre

Ibilbide hau Gida Didaktikoko ariketen mapan agertzen da azaldurik.

Ikasleen Lan-koadernoak gaitasun handiak dituzten ikasleentzako jarduerak eskaintzen ditu.

Jarduerak honako zenbaki hauekin daude adierazita: **1.1, 2.1, 3.1, 4.1, 5.1, 5.2, 6.1** eta **7.1**.

Ikasleei aukera eman ahal zaie, halaber, **ikerketa** ariketak egiteko, banaka nahiz taldeka; esate baterako, **Dena Libre** atalean ageri direnak.

Kontua da ikasleek informazioak bilatzea eta haiek euskarri informatikoan (Webquest, PowerPoint...), kartoi meheetan, DIN A3an eta abarretan antolatuta, aztertu eta islatzea, ikasgelako gainerakoei erakusteko, ikastetxeko aldizkarian jasotzeko, ikastetxeko panel eta erakustokietan erakusteko, Nafarroako Parlamentuko Ikasgela Birtualean txertatzeko eta abarretarako.

BEHAR DEN DENBORA:

NAHI ADINA.

2. Unitate Didaktikoaren testuingurua eta hezkuntzaren Lege Organikoarekin daukan zerikusia: gaitasunak

Nafarroako Parlamentuari buruzko Unitate Didaktikoaren testuingurua Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako (DBH) bigarren zikloa da.

Unitate Didaktikoan jasotako edo bertatik sustatutako ariketa guztiek eskubi-
deen eta askatasunen errespetuarekin oinarritzen diren Konstituzioaren balioak
nabarmentzen dituzte, eta lotura daukate Hezkuntzaren Lege Organikoak hezkun-
tzari buruz adierazten dituen printzipio eta helburuen sarearekin.

Hezkuntzako printzipioen multzoan garrantzizko tokia betetzen dute honako
hauek transmititzen laguntzen duten balioek: askatasun pertsonala, erantzukizu-
na, herritartasun demokratikoa, solidaritatea, tolerantzia, gizon eta emakumeen
arteko egiazko berdintasuna, errespetua eta justizia, besteak beste. Izan ere, horiek
dira bizikidetasunaren oinarri.

Hezkuntzaren Lege Organikoan nabarmentzen diren helburuen artean, Unitate
Didaktikoaren balioen ardatzak diren batzuk zehazten dira:

- Oinarrizko eskubide eta askatasunekiko errespetuan, gizonen eta emakumeen arteko eskubideen eta aukeren berdintasunean eta ezgaituekiko tratu berdintasunean eta bazterkeria ezean oinarrituriko hezkuntza garrantzea.
- Tolerantzia eta askatasuna aurrera eramatea proposatzen da, betiere bizikidetasunaren printzipio demokratikoen mugapean, bai eta gatazkei aurrea hartzea eta haiek modu baketsuan ebaztea ere.
- Norberaren erantzukizunaren eta bakoitzaren merezimenduaren eta ahalginaren arabera heziketa ematea.
- Bakerako, giza eskubideetarako, elkarrekin bizitzeko, kohesio sozialerako, eta herrien arteko lankidetzarako eta elkartasunerako prestakuntza ematea.
- Ikasleei prestakuntza ematea herritartasuna lantzeko eta bizitza ekonomiko, sozial eta kulturean jarrera kritiko eta arduratsuz parte hartzeko, ezagutzaren gizaratean aldatzen doazen egoerei egokitzeko gaitasunez.

Hezkuntzaren Lege Organikoko 6. artikulua curriculum definitzen du esanez multzo bat dela, oinarrizko gaitasunek, edukiak, metodo pedagogikoen eta ebaluazio-irizpideek osaturikoa. Curriculumari Europar Batasunean definituriko oinarrizko gaitasunak —«testuingururako egokiak diren trebetasunen, ezagupenen eta jarreraren nahasketak»— Hezkuntzari buruzko Lege Organikoan sartzeak zenbait helburu dauzka. Lehen-dabizi, ikaskuntza desberdinak integratzea, formalak —arlotan edo gaietan sartzen direnak— nahiz ez-formalak. Bigarrenik, ikasleei modua ematea beraiek ikasitakoa integratzeko, ikasketa horiek askotariko edukiarekin uztartzeko eta eraginkorki erabiltzeko, egoera eta testuinguru ezberdinetan beharrezkoak zaizkienean. Eta, azkenik, irakaskuntza bideratzea, nahitaezkoak diren edukiak eta ebaluazio-irizpideak identifikatzea ahalbidetzen duenez.

Martxoaren 19ko 25/2007 Foru Dekretuak ezartzen du, batetik, Nafarroako Foru Komunitatean Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako irakaskuntzen curriculumak, eta bestetik, ikasleek hezkuntza-helburuak eta, beraz, oinarrizko gaitasunak ere eskuratu ahal izan ditzaten jarrita dauden curriculumeko gaiak. Gai horietako bakoitzak gaitasun ezberdinei garatzen laguntzen die eta, bestetik, oinarrizko gaitasun bakoitza erdietsiko da zenbait gaitan eginiko lanaren emaitza gisa.

Nafarroako Parlamentuari buruzko Unitate Didaktikoan, curriculumeko zenbait gairen edukiak eta ezagutzak bideratzen dira, Hezkuntzaren Lege Organikoan ezarritako helburuetarako eta oinarrizko gaitasunak garatzeko lagungarri direnak.

Hori dela eta, interesgarritzat jotzen da Unitate Didaktikoko ikaskuntzak orientatzea eta eduki mota desberdinekin lotzea, eduki horiek modu eraginkorrean erabiltzea beharrezkotzat jotzen denean, eta haiek aplikatzea egoera eta testuinguru desberdinetako «egiten jakitearen» modu baten gisara:

- ikasgelako/ikastetxeko ingurune txikian
- herriko, kaleko eta familiako tarteko ingurunean
- Foru Komunitateko, Espainiako, Europako, munduko ingurune handian.

Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentuak helburu zehatzak ezartzen ditu Bigarren Hezkuntzako ikasleentzako oinarrizko gaitasunak hobetzeari dagokionez, horrela modu bat eskaintzearren, Europako helburuak, nazionalak eta erkidego bakoitzarenak integratuta egon daitezkeen ikastetxe bakoitzaren helburu bereziekin, hezkuntza proiektuaren eta programazio didaktikoen barruan. Unitatearen prozesu didaktikoa eskumen horien ildoari jarraituko zaio.

Ikuspegi horretatik, oinarrizko gaitasunak unitate didaktiko honetan jasotzeak behartzen gaitu, batetik, galdegitera zein oinarrizko ikaskuntza nahi dugun ikasleek praktikan jar dezaten, eta, bestetik, zenbait lehentasun ezartzera ikaskuntza horien artean. Esate baterako, gaitasun batzuk beste batzuen aldean hobesten dira, hautaturiko ibilbidearen arabera. Gehiago landuko dira honakoak:

- **Hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna.**
 - Matematika-gaitasuna.
 - Jakintzarako eta mundu fisikoarekiko elkarrekintzarako gaitasuna.
- **Informazioaren tratamenduari buruzko gaitasuna eta gaitasun digitala.**
- **Gizarte- eta herritar-gaitasuna.**
 - Gaitasun kultural eta artistikoa.
- **Ikasten ikasteko gaitasuna.**
- **Autonomiari eta ekimen pertsonalari buruzko gaitasuna.**

Curriculumeko arloek osatzen dute helburu horiek erdieste aldera taxaturiko antolaketa-markoa. Baina curriculumeko arloetako lana ez da bide bakarra; halaber, ikasleentzako partaidetzaren bitartez indartu daitezke, ikastetxeetako bizikidetasun-arauak egitean eta beste helburu batzuk ezartzean, berdintasun, herritartasun edo alfabetizazio digitalarekin loturikoak.

Unitate didaktiko honetan, lotura berezia ezartzen da irakurmenean inplikaturiko gaitasunak hobetzeko proiektuarekin. Bai eta honako gai hauekin ere: Hizkuntza eta Literatura, Gizarte Zientziak, Geografia eta Historia, Hezkuntza Plastikoa eta Ikusizkoa, Teknologia eta Herritertasunerako Hezkuntza.

Oinarrizko gaitasunen deskribapen bat sartu dugu Nafarroako Parlamentuari buruzko unitate didaktiko honetan, eta adierazten dugu zein curriculum arlo garatzeko den lagungarria unitatea.

Erabakitzen diren edukien, kontzeptuen, prozeduren eta jarrerren hautaketa egitean ziurtatu beharko da kontuan hartzen direla oinarrizko gaitasunen eskuratzearekin edo haien alderdi jakin batzuekin zuzeneko zerikusia daukatenak.

Gaitasunak izaera integratzailea dauka, eta ezagutzak, prozedurak eta jarrerak batzen ditu.

Azken batean, Nafarroako Parlamentuari buruzko unitate didaktiko hau abiarazteak helburu gisa dauka, Nafarroako Foru Komunitateko Parlamentuari eta erakundeei buruzko ezagutza sakontzeaz gain, gure gazteen prestakuntza-ibilbidea aberastuko duen ekarpena egitea:

- Familian sorturiko eta ikastetxeetan landuriko balioen arloko prestakuntza indartzea.
- Herritar-multzo aktibo eta arduratsu bat sortzeko langintzan laguntzea, toki-esparruaren eta esparru globalaren ikuspegietatik.
- Informazioaren eta komunikazioaren teknologietako tresnak erabiltzea norberaren irakaskuntza/ikaskuntza prozesuari uztarturik, informazioak bilatzeko, haiek prozesatzeko eta horrela ikaskideekin, ikastetxeekin eta Parlamentuarekin berarekin nahiz beste gizarte-esparru batzuekin komunikatuta egon daitezen lortzeko.

Honako taula honetan zehazten da zein diren landu beharreko gaitasunak eta zer zerikusi daukaten gaiekin:

ARLOEK DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZAKO OINARRIZKO GAITASUNEN GARAPENARI EGINIKO EKARPENEA

	1. HIZKUNTZA KOMUNIKAZIOA	2. MATEMATIKA GAITASUNA	3. INGURUNE FISIKOA EZAGUTZEA ETA HAREKIKO ELKARREKINTZA	4. INFORMAZIOAREN TRATAMENDUA ETA GAITASUN DIGITALA
GIZARTE ZIENTZIAK, GEOGRAFIA ETA HISTORIA	<ul style="list-style-type: none"> Nafarroako Parlamentuari buruzko eduki historiko eta herritartasunekoari dagokion berariazko hitz-sorta. Ahozko eta idatzizko testu historiko, argibidezko, azalpenezko eta argudiozkoen ulermena eta adierazpena. Albiste baten analisia. Albiste bat nola adierazi eta idatzi: piramide erako informazioa. Sintesien eta itxiera-mapen egituratzea. Txostenak egitea. 	<ul style="list-style-type: none"> Lanabes matematikoak testuinguru esanguratsuetan erabiltzea: neurriak, eskalak, taulak, grafikoak... 	<ul style="list-style-type: none"> Nafarroako Parlamentuari buruzko mapa eta hiru dimentsioko planoen eta espazioen interpretazioa. 	<ul style="list-style-type: none"> Bitarteko informatikoak eta Nafarroako Parlamentuko Ikasgela Birtuala modu arduratsuan erabiltzea: historiari eta herritartasunari buruzko informazio-emaile eta Nafarroako Parlamentuko bizitzari eta zereginen buruzko ezagutza berrien iturburu diren aldetik. Nafarroako Parlamentuaren funtzionamenduari buruzko informazio garrantzitsuena ikasleek alde zurretik dituzten ezagutza-eskemetan integratzea. Ariketen bitartez baneraturiko informazioen eta ezagutzen adierazpena eta komunikazioa, era askotako adierazpen baliabideak eta informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabiliz: hiperestekak erabiltzea; ikastetxeko aldizkarirako txostenak eta sintesiak prestatzea. Dosierrak, lanak, webquestak eta albisteak Nafarroako Parlamentuko Ikasgela Birtualerako. Panelak eta erakusketak ikasgelan edo/eta ikastetxean, Nafarroako Parlamenturako Irteerari buruzko informazioekin eta argazkiekin.
HIZKUNTZA ETA LITERATURA	<ul style="list-style-type: none"> Komunikazio-testuinguru ezberdinetan gizarte-erabilera azpimarratzea. Interneten informazioak bilatzea. Testu idatzien ulermena. Ahozko adierazpena: eztabaida egiteko arauak. Testu idatzien produkzioa: iritziak nola adierazi. Idatzizko lanen aurkezpena: idatzitakoaren berrikuspena. 	<ul style="list-style-type: none"> Datu eta irudikapen grafiko eta numerikoen egokitasuna eta idatzizko koherentzia. 	<ul style="list-style-type: none"> Koherentzia eta kohesioa idatzizko testu eta informazioetan. 	<ul style="list-style-type: none"> Testu-tratamendurako eta komunikazio digitalerako oinarrikoak diren lanabesen ezagutza.
HEZKUNTZA PLASTIKOA ETA IKUSIZKOA	<ul style="list-style-type: none"> Lan-prozesuen deskribapena; ideien, argudioen eta irizpenen trukaketa. Ikono-lengoaiari dagokionez, irakurketa- eta komunikazio-ahalbideak ugaritzea idatzizko lanetan. 	<p>Formak eta posizioak espazioan erabiltzea. Denbora-kontzeptuen erabilera. Obra eta ekoizpenen analisisan matematikako terminoak erabiltzea.</p>	<ul style="list-style-type: none"> Mundu fisikoa, bere elementuak eta nolakotasunak lantzea eta aztertzea; manipulazioa eta birsorkuntza. Ingurune fisiko atsegina sustatzea. 	<ul style="list-style-type: none"> Lanabes eta baliabide digitalak erabiltzea ikono-, arte-, soinu- eta ikusizko ekoizpenetan. Informazioak helarazi eta trukatzeko Parlamentuko jarduerak eta esperientziei buruz, Nafarroako Parlamentuaren historia eta eginkizunei buruz, eta abar.
HERRITARTASUNERAKO HEZKUNTZA	<ul style="list-style-type: none"> Argudiaketa eta eztabaida: entzuten dut, aztertzen dut eta adierazten dut. Ezagutzaren zerumugak zabaltzen ditut, beste pertsona batzuekin ideiak eta lan dinamikak konpartituz. 			<ul style="list-style-type: none"> Interneteko erabileren irizpen kritikoa: ezagutzarako eta pertsonen arteko partaidetzarako lanabes gisa, balioak eta jakintzak sakontzeko, versus lanabes horien erabilera negatibo eta arduragabea.
TEKNOLOGIAK	<ul style="list-style-type: none"> Nafarroako Parlamentuko Ikasgela Birtualeko hiztegia ezagutzea, hura informazio-bilaketetan eta informazioen komunikazioan erabiltzeko. Euskarri teknikoetan idatzitakoan irakurketa, interpretazioa edo/eta erredakzioa: Word, PowerPoint, second life, DVD, infografiak eta abar. 	<ul style="list-style-type: none"> Iruñeko planoan eta Nafarroako, Espainiako eta Europako planoan eskalak edo distantziak neurtzea eta kalkulatzeko. 		<ul style="list-style-type: none"> Ordenagailuaren erabilerarekin eta tresna digitalekin loturiko oinarriko trebetasunak: bideoa, argazkia.

5. GIZARTE GAITASUNA ETA HERRITAR GAITASUNA

- Nafarroako elementu historiko eta kulturalen identifikazioa.
- Nafarroaren historiako eraldaketa garrantzitsu batzuk ezagutzen jakitea.
- Nafarroako Gobernuak Estatuko eta Europako erakundeak ezagutzea: haien funtzionamendua eta antolaketa.
- Ikerketa sinpleak, Foruaren, Hobetzearen, Nafarroako erakundeen eta abarren historiako nondik norakoekin zerikusia dutenak.
- Bizikidetasuna eta tolerantzia klasean-ikastetxean, familian eta «kaleko» eremuetan.
- Bizi garen tokiko errealtatearen eta gizarte-aniztasunaren ulermena.
- Konstituzioaren eta Giza Eskubideen errespetua.
- Gizarte-bizitzan partaidetza aktiboa izatea: balio demokratikoak, herritarren betebeharrak, askatasunen begirunea eta abar.

- Oinarrizko hizkuntza, pertsonen arteko komunikaziorako eta elkar aberasteko, besteengana irekitzeko eta besteekiko ulermenerako.
- Informazioa antolatu eta sailkatzea, eta hura lotzea, aztertzea eta laburtzea; informazioa eskemen, itxiera-mapen eta txostenen bitartez eta Nafarroako Parlamentuaren Ikasgela Birtuala erabiliz komunikatzea.
- Bizikidetasuna zailtzen duten muntako arazo sozialei buruzko inferentziak eta dedukzioak egitea. Abiapuntua eguneroko bizitza, komunikabideetako albisteak, irakurgaiak, filmak eta abar izanzen dira. Banaka eta taldeka jarduteko konpromisoak.

- Lan-taldea, lankidetzak, erantzukizuna eta arau eta jarraibideei men egitea. Materialak eta eremuak zaintzea.
- Begirune eta ulermenezko jarrerak, ekoizpen eta lanen aurrean.

- Herritarren parte-hartzea.
- Gizarte demokratiko batean bizitzeko trebetasunak eskuratzea, askatasun eta erantzukizun eta gatazkari aurre eginez elkarriketa, tolerantzia eta errespetuaren bitartez.

- Ideiak antolatzeko arazo teknologikoak ebaztea eta Nafarroako Parlamentuaren edo beste espazio batzuen ezagutzarekin eta antolaketaekin loturiko zailtasunak aztertzea edo erabakiak hartzea.

6. GAITASUN KULTURAL ETA ARTISTIKOAK

- Ondare kulturalaren eta egitate artistikoen ezagutza, aniztasunaren ikuspuntutik.
- Kultur eta arte aniztasunaren eta era guztietako adierazpide artistikoen estimua.
- Horma-irudiak, posterrak, esloganak, argazkiak, logotipoak eta abar egitea ikastetxeko ingurunea eta bizikidetasuna hobetzeko.

- Nafarroako Parlamenturako irteerari buruz edo unitate didaktiko honetako ariketa garrantzitsuetan informatzeko erabiltzen diren hizkuntza eta komunikazio estiloak aztertzea, arlo desberdinei dagokienez: Nafarroako Parlamentuko Ikasgela Birtuala, eskolako aldirak, horma-irudiak, posterrak, argazki erakusketak eta abar.
- «Laneko azal» baten testu-elementuak egitea.

- Kode grafiko eta ikoniko desberdinen ezagutzan sakontzea eta ekintza, kanpaina, arazo eta abarri buruz informatzeko erabiltzen diren txosten eta estrategietarako teknikak eta baliabideak erabiltzea.
- Bestelako adierazpide batzuk aintzat hartu eta errespetatzea.

- Informazioa adierazteko trebetasunak, eta lengoia grafiko eta ikonikoen bitarteko informazioa, bitarteko informatikoen.

- Ordenagailuen eta Nafarroako Parlamentuko Ikasgela Birtualaren erabilerekin loturiko arazo teknologikoak ebaztea, informazioa lortzeko, aztertzeko, laburtzeko eta esparru batzuetan komunikatzeko.

7. IKASTEN IKASTEAK

Alfabetizazioa digitala: testuen prozesamendua eta Internet.

- Informazioa bilatzeko, sailkatzeko, aztertzeko eta laburbiltzeko estrategiak eta teknikak garatzea, laburpenak, eskemak, mapa kontzeptualak, sekuentziak eta panel erako prozesuak erabiliz eta webquestak eginez.
- Prozesuak laburbildu eta azaltzea, ikasten ikasteko eta besteekin partekatzeko lanabes gisa.
- Lankidetzak-lana gainerakoekin ikasteko, eta nor bere burua ebaluatzeko gaitasuna.
- Ikaskuntzan pertseberantzia izatea; horrek, berarekin dakar lanak ongi egiteko ahaleginak egitea eta gauza izatea norbera ebaluatzeko eta banaka eta taldeka koebaluatzeko. Nafarroako Parlamenturako irtenaldian arreta jartzeko eta informazioak biltzeko ahalegina; ikasgelan eginko ariketen garapen maila eta kalitatea; akatsak eta hobetu daitezkeen egoerak baloratzea, eta abar.

- Testuetako ulertzeko irakurketari eta ariketetan ezarritako irizpide didaktikoen arabera ordenaturiko idatzizko adierazpenari arreta egitea.
- Mintzairaren barne-funtzioa: errealtatea adierazteko bitarteko gisa, pentsamenduaren egitura eta koherentzia gisa eta jardueraren orientabide gisa.
- Adierazpen baliabideak erabiliz lorturiko komunikazioa, informazioa eta ezagutzak, bertan txertatuz lengoia eta berriazko teknikak ez ezik, informazioaren eta komunikazioaren teknologiek eta Nafarroako Parlamentuaren Ikasgela Birtualak eskaintzen dituzten aukerak ere.

- Behaketa, miaketa eta ikerketa; aukeren eta soluzioen bilaketa. Prozesu-plangintza eta protokoloen edo egindako urratsen jarraipena.
- Ahaleginak eta norberaren burua gainditzea proiektu plastiko bat modu grafiko eta ikonikoen eta euskarri desberdinetan diseinatzeke zailtasunen aurrean.

- Trebetasun sozialak eta koordinaziorako nahiz lan-talderako jardunbideak bereganatzea.
- Norberaren ideiak eta iritziak besteekin kontrajartzea, arrazoiketa, elkarriketa eta eztabaidaren bitartez; problemei eta soluzioei buruzko jarrera erabakitzea; sintesia eta adostasuna; besteekin baterako erabaki-hartzea.

- Ordenagailuen eta Nafarroako Parlamentuko Ikasgela Birtualaren erabilerekin loturiko arazo teknologikoak ebaztea, informazioa lortzeko, aztertzeko, laburtzeko eta esparru batzuetan komunikatzeko.

8. AUTONOMIA ETA EKIMEN PERTSONALA

- Ekimen pertsonala eta taldekoa, taldean lan egiteko: arazo, gatazka sozial bat aztertzea eta erantzukizun eta eskumen arlo desberdinetan ondorioak aurkeztea: ikastetxeko Zuzendaritza, Ikasleen Ordezkariekin eta Delegatuen Batzarra, Eskola Kontseilua, Gurasoen Elkarteak, Parlamentua eta abar.
- Beste lankidetzak- eta ikaskuntza-guneekiko lan-taldea: parlamentariak, beste ikastetxe batzuetako taldeak, GKEak, komunikabideak eta abar, gainerakoekin ikasteko modu gisa.
- Bizikidetasun giroa eta ikasgelako eta ikastetxeko ingurumenaren zainketa hobetzeko neurriak iradokitzen dituzten eta ahalbidetzen duten ekintzak eta kanpainak abiaraztea: patioko eremua, sarrerak eta irteerak, gatazka baten aurreko jarrerak, hormetako pintadak, ikastetxeko materiala eta altzariak zaintzea eta abar.

- Proiektu, banakako lan edo taldeko lan bat garatzeko faseen ezagupena: jakin behar da planifikatzen, erabakiak hartzen, jokatzen eta ebaluatzen eta ondorioak ateratzen, lanaren erronkari aurre egiteko eta auto-estimua sendotzeko motibazio berezkoari eta iraunkorari eusteko modurik onena baita.

- Era guztietako lengoia artistikoak erabiliz norberaren ideiak adierazteak sustagarri gisa eragiten du ekimen, irudimen, originaltasun eta asmatzearen.

- Trebetasun pertsonalak: bestearen tokian jartzea, «besteengan pentsatzen ikastea», ondoko arloetako toki komunei buruz eztabaidatzea eta negoziatzea: bizikidetzak, tolerantzia, arraza-arrazoiengatikoa bazterkeria eza, partaidetza, justizia, askatasuna eta erantzukizuna, ahulekiko lankidetzak eta abar.

- Ekimen-zaletasuna, konfiantza, originaltasuna, norberaren burua gainditzeko espiritua, zailtasunen aurrean iraunkortasunez jokatzea eta gogoeta, pertsonala eta taldekakoa sustatzea, proiektu bati edo arazo teknologiko bati aurre egiteko.

GIZARTE ZIENTZIAK, GEOGRAFIA ETA HISTORIA

HIZKUNTZA ETA LITERATURA

HEZKUNTZA PLASTIKOAK ETA IKUSIZKOAK

HERRITARTASUNERAKO HEZKUNTZA

TEKNOLOGIAK

Gaitasunei buruz aritzean zehazturiko ekintza horiek guztiek badaukate zer edo zer komuna:

- Egiten jakiteko ahalmena ematen dute; hots, bizitzan gainerako pertsonekin izaten diren problemei jakintzak aplikatzeko ahalmena.
- Askotariko testuinguruei egokitzeko moduko ekintzak dira: familia, ikasgela, aisiako lekuak, lan eremuak eta abar.
- Izaera integratzailea daukate, eta ezagutzak, prozedurak eta jarrerak biltzen dituzte.
- Aukera ematen dute ikaskuntzak eduki mota desberdinekin integratzeko eta erlazionatzeko, modu eraginkorrean erabiltzeko eta egoera eta testuinguru desberdinetan aplikatzeko.
- Bizitza osoan zehar ikasi, berritu eta mantendu behar dira: etengabe eguneratzen ari den ikasketa.

Gune horietako bakoitzak prestakuntza-ekintza zehatz bat du beharrezkoa. Adimenak ez dira besterik gabe garatzen, baizik eta ikasleek gara ditzaketan adimenetako bakoitzean berariaz jardunez. Beraz, esperientzia indibidualak sustatu behar ditugu, gaitasunak garatzeko eta haiek aplikatzen jakiteko.

Ikerketek erakusten dute herritarrek elementu kognitiboak badauzkatela: ikasleek eta gazteek gutxieneko informazio ulergarria behar dute, demokrazia zer den eta egitura demokratikoen maila guztietan nola funtzionatzen duten jakiteko. Montané eta Beernaert-ek¹ adierazten dutenez, ulermen hori errazago lortzen da pertsonengandik hurbilen dauden egitura demokratikoen bitartez; alegia, familiaren eta ikastetxearen ingurune txikian eta tokiko erkidegoaren tarteko ingurunean, landan edo hirian, auzoan edo hiri-erdigunean.

Eskoletako curriculum-garapenetan beste erronka bat sortzen da, demokrazian, erakundeen eta balio demokratikoen faktore kognitiboa sormenez sustatzeko. Espero dezagun unitate didaktiko honen garapenak horretarako bidea ematea.

¹ M. Montané eta Y. Beernaert, *Hacia una ciudadanía activa. Jóvenes del mundo en conexión*. Fórum Universal de Culturas- Bartzelona, 2004.

3.1. Jarrerak eskolan

Nola irakatsi balioak eta jarrerak ikastetxean?

UNESCOren Etika Unibertsalaren proiektuak XXI. mendeko gizarte globalerako oinarrizko printzipio etikoak identifikatzen ditu, problema globalen ebazte-lanetan gizateriari lagunduko dioten ideiak, balioak eta arauak sustatzearen bidetik. Printzipioetako bat da ezein kultura ez dela posiblea agintarientzako gidalerroak izanen diren ideia eta balio komunetan oinarrituriko adostasun batera iritsi gabe. Guk gehitu nahi dugu ezen, agintarientzat ez ezik, hezkuntzako arduradunentzat ere behar dutela gidalerro horiek izan. Herritartasun-balioen esparruak biltzen du, bere barrenean, unitate didaktiko honek dituen muin garrantzitsuetako bat.

Horrelako balioen adibide liriteke herritartasun aktibo baterako balioak, hala nola irekitasuna eta elkarrekin mintzatzen ikastea, ongiaren nozioa, guztion ongia errespetatzea, nor bere burua eta besteak errespetatzea, sexu edo arrazaren arabera bereizketarik egin gabe, eskubide eta erantzukizun indibidualak, ahulena direnentzako laguntza gisa ulerturiko justizia, egiazaletasuna, leialtasuna, bakean eta indarkeriarik gabe bizitzeko eskubidea, giza duintasuna eta abar.

Beraz, kontua ez da soilik Nafarroako Parlamentuaren historiarekin eta legegitza-ekoizpenekin zerikusia daukaten informazio edo gai asko aintzat hartzea. Horrek balio dezake ikasleak informazioei hurbiltzeko. Baina, argi eta garbi, irakaskuntza-metodoak dira prestakuntzaren ikuspegitik haiengan arrastorik handiena utziko dutenak. M. A. Zabalza² irakasleak adierazten duen bezala, nekez lortuko dut nire ikasleei errespetu, tolerantzia eta bizikidetasunaren egiazko kontzientzia bat transmititzea, lantzen ditugun edukiak oso aberatsak eta eguneratuak izanik ere, baldin eta nire irakaskuntza-metodoak ildo berean ez badaude prestakuntza-helburu horrek mentalitatearen eta besteekiko jarreraren ikuspegitik daukanarekin: nor bere buruari galderak egitea bere portaerari buruz eta, oro har, pertsoneri buruz; jarrerak gainerako herritarrentzat dituzten ondorioei buruz; Parlamentuaren proiektuak ezagutzera arretaz hurbiltzea (Lan-irtenaldia oso garrantzitsua da).

Eskolako **giro instituzionala** bera ere oinarrizkoa da: ezin pentsatuzkoa da ezen, ikastetxe batean agintekeriazko lan-giroa nagusitzen denean, edo lan-giro garrantza edo inkomunikaziozkoa, inola ere lortuko denik taxuzko prestakuntza eta partaidetza, hobekuntzarako ahalegin-sinergia, erabaki kolektiborik hartzea, eta abar. Ikastetxeko barne **ethos**arekin kontraesanean suertatzen da, azken batean, mezu hori.

Idea orokor horrekin batera, eta horrez gain, esan behar dugu **berariazko teknikak** badaudela, jarrerak lantzeari dagokionez. Trebetasun sozialak praktikan jartzea lan kooperatiboetan, bai eta zenbait jarrera indartzeko teknikak ere, zailtasunei aurre egiteko esfortzua eta «autolaguntza» irakatsiz zenbait jarrera sendotzen dituztenak, edo klasekide guztien artean eginiko «kontratuen» bitartez bizikidetasun-problemen aurrean taldearen erantzunak indartzen dituztenak, teknika aipagarri horien adibideak dira.

² Miguel Ángel Zabalza Beraza, *Ambiente y Educación*, CENEAM. Valsain, 2007.

Eta gero, gogatzeari dago, mekanismo didaktiko aproposa. Gogatzeari sedukzio-osagai bat dauka. Herritar aktiboentzako prestakuntzaren esparruan, gogatzeari zerikusi handia dauka, halaber, ikasleei beraientzat garrantzitsuak diren pertsonen edo pertsonaien mota jakin batekin topo egiteko ematen dizkiegun aukerekin. Hots, lidergo positiboa daukaten beste gazte batzuekin, edo politikari, kazetari, kirolariek...

Oraintsuko zenbait autore prestigiodunek azpimarratu egin dute beharrezkoa dela irakaskuntzaren dimentsio moralari lehentasuna ematen segitzea. Balio jakin batzuekiko konpromisoa (giza eskubideak eta demokrazia, aukera-berdintasuna, justizia soziala, egia eta errealismoa, lagun hurkoa aintzat hartzeko modu gisa ulerturiko maitasuna, langiletasuna, udalerrri-esparruko bizitzak Europaren eta mundu globalizatuen esparruko dimentsio bat edukitzeari buruzko kontzientzia, edo gizartea hobetzeko asmoz zerbitzu emateko jarrera) agertzen da, hain zuzen ere, herritartasun-balioetan ongi oinarrituriko irakaskuntzaren osagai funtsezko gisa Hargreaves-ek (2001)³ nabarmenarazi nahi duen erliebe geografiko horren osagaien artean.

Irakasle bakoitzaren estilo didaktikoa, M. A. Zabalzak errepikatzen duenez, balio moralen arragoa bat baizik ez da; hots, bertutez eta printzipioz osaturiko multzo bat, azken batean halako irakaskuntza-giro berezia sortzen dutenak non, bertatik abiatuta, ikasleek beren trebakuntza pertsonala, demokratikoa eta herritarra erdietsi ahalko baitute. «Nafarroako Parlamentuko bizitza» ikertzeari ekiten diogunean, jarrera kartsuz aritzea abantaila bat da balio etiko, moral eta gizatiarren eta herritartasun-portaera aktiboen arragoa hori osatzeko.

Azken batean, gure gazteen giza errealizaziorako jarreraren eta balio demokratikoen bizipena eta barneratzea ahalbidetze aldera ikasgelan jokoan jartzen ditugun metodoak erabakigarriak dira.

Gaitasunak (eta horiei begira unitate didaktiko honetan aurkezten diren ikasketa-prozedurak eta jarrerak) ez dira berez ikasten; aitzitik, metodologia jakin bat behar dute, ageriko asmo bat duena: aktibatzen diren oinarritzko estrategiak «egiten jakitea» eta irakastea. Hori helburu saihestezina da ikasleek egiten dituzten jarduerak ikasteko.

- Lanaren parte bat klaseko kolektibo osoak aldi berean eta indibidualki egin dezake: proiektuaren hasierako jarduerari dagokiena. Alegia: unitate-arekin lortu nahi denari buruzko azalpena, testu hautatua irakurtzea, aurretiko ideiekin zer lortu nahi den, hasierako mapa kontzeptuala, Nafarroako Parlamenturako Lan-irtenaldia eta talde-koebaluazioa.

3.2. Metodologia

3.2.1. Gaitasunak garatzea

³ Hargreaves, A., *Emotional Geographies of Teaching*. Teacher College Records, 2001eko abendua, 1056-1080. orrialdeak

- Oinarrizko Ibilbideko ariketak, edo haietatik irakasleek hautatzen dituztenak, banaka landu daitezke Lan-koadernoan.
- Halaber, bizpahiru pertsonako taldeetan ikasketa kooperatiboa egitea proposatzen da, ordenagailua erabili ahal izan dezaten eta Ikasgela Birtualaren eta/edo ariketek iradokitzen dituzten ikus-entzunezko baliabideen bitartez ikerketa errazak egin ahal izan ditzaten.
- «DENA LIBRE» atalean iradokitako ikerketek autonomia gehiago ematen diete ikasleei, baina irakasleek adierazi beharko dituzte oinarrizko jarraibideak, informazioak biltzeko tokiak, arazoen analisia, ondorioak eta auto-ebaluaziorako irizpideak.
- Unitateko ariketa hauek aurrera eramateko metodologiaren ardatza da Ikasleen Lan-koadernoan edo Nafarroako Parlamentuko Ikasgela Birtualean iradokitako ikerketa-ildoan araberako jarduerak gauzatzea.

Oro har, horrek esan nahi du egiten ditugun ariketa didaktiko gehienak eskema orokor honen araberakoak izanen direla:

- a) Lan-talde bakoitzak jorratuko duen problema edo gaia identifikatzea.
- b) Informazio-bilketa (datuak edo laginak identifikatu eta erregistratzea).
- c) Informazio-prozesatzea (sailkapen, analisi eta irudikapenak).
- d) Lanak klasean aurkeztu eta emaitzak eztabaidatzea.
- e) Ondorioak eta ekimen-proposamenak, txostenak, eztabaidak, mahai-inguruak, kanpainak, posterrak, kartelak erakusketak eta abar ikastetxe-ari, guraso-elkarteari, udalari, Nafarroako Parlamentuari, beste ikastetxe-ari eta abarri dagokionez.
- f) Ebaluazioa: norbanakoarena eta koebaluazio orokorra.

3.2.2. Nafarroako Parlamentuko Ikasgela Birtualaren bitartez ikasketa antolatzea

Nafarroako Parlamentuko Ikasgela Birtualaren bitartezko ikasketaren antolaketari buruzko planteamenduak oinarrizko edukien programa bat aurkezten du; irakasleek programa hori inspirazio-bide izanen dute ikasleek banaka edo taldean egin beharreko ariketak planifikatu eta eraikitzeke langintzan murgiltzeko.

Kontua da:

- Ikasleek praktikan jar ditzatela **Informazioaren tratamendua eta gaitasun digitala** deritzon gaitasunean oinarrituriko ikasketa-estrategiak, halako moduz non, bitarteko informatikoak eta Ikasgela Birtuala arduraz erabiliz, «Nafarroako Parlamentuko bizitza» delakora hurbildu ahal izan daitezen, eta horrekin bat, bere historia ezagutu, eta bere funtzionamendua, jokabide demokratikoak eta aldarrikatzen diren herritartasun- eta demokrazia-balioak ere bai.

- Bestalde, Ikasgela Birtuala erabiliz, **ikasten ikasteko** gaitasuna baliatzen da, horrek alfabetizazio digitala ahalbidetzen baitu: testu-prozesatzea eta Internet, informazioa bilatzeko estrategiak eta teknikak, Wordeko dokumentuak egitea, Powerpoint bat prestatzea sailkapen, analisi eta sintesiak jasotzeko, laburpenak egitea, eskemak, mapa kontzeptualak, webquest-prestaketa, bideo edo irudi-sekuentzia bat sortzea, hitz-karpetak, testu-bildumak, liburu-fitxak, esaldi demokratikoen eta herritartasunerako balioen agenda, eta abar.
- Halaber ahalbidetzen du prozesuak eta eztabaidak laburbildu eta azaltzea (problema bati, giza eskubideei, Nafarroako Parlamenturako Lanirtenaldiari eta abarri buruz), ekiten eta gainerakoekin konpartitzen ikasteko bitarteko gisa.
- Azkenik, suspertu egiten du lankidetzalana eta besteekin elkar ebaluatzeko gaitasuna.

Klasean, non balio demokratikoak sakontzen baitira, gauzatzen da demokraziarik handiena, aktiboki, autonomiaz eta arduraz ikasteko egintzan. Ezagutzak, prozedurak eta trebetasunak, balioak eta portaera-arauak ez dira berezkoak: berariaz txertatu behar ditugu programazioan, ikasleek praktikaren bitartez barnera ditzaten: **egiten jakitea** eta estrategiak **praktikan jartzen jakitea**.

Mailarik altueneko helburuetan sartzen da informazioaren eta komunikazioaren teknologien bitartez ezagutaraztea lanak, gelan edo taldeka eztabaidatzea eta irakasleek iradokitako ikerketak eta sakontze-lanak egitea. Lan horiek beste ikastetxe batzuekin trukatzeko; halaber, egindakoa Nafarroako Parlamentura igortzea edota familiei, gurasoen elkartei eta beste gela batzuetako ikasleei aurkeztea, adierazpide eta amaierako emaitza gisa; hau da, behar diren gaitasunen araberako garapen praktikoa.

Estrategia orokor moduan, komeni litzateke irakasleek ikasleekin jarduteko guxtienez ere hiru ekintza-ildo ezartzea:

- Zenbait informazio eta irakasleek gidaturiko jarduera, talde handian. Esate baterako: testu hautatuari buruz; lan hori dossier pertsonaletan egiten du norberak; halaber, prestaketa-lan bat egitea Nafarroako Parlamenturako irtenaldia egin aurretik, irtenaldian zehar eta ondoren ere bai, irtenaldiko datuak antolatuz. Hezkuntza-beharrizan bereziak dituzten ikasleei berariazko gidaritza egiten zaie.
- Beste ariketa batzuk, zeinetan ikasleek lan egiten baitute irakasleen erdizkako laguntzarekin. Ikasleek, nork bere kasa edo taldeetan, informazio-bilaketarako eta erantzunak osatzeko jarrera bat garatzea, horretarako erabiliz liburutegiko komunikabideak (prentsa, irratia, telebista), entziklopediak, liburuak, atlasak, DVDak eta Internet nahiz Ikasgela Birtualako baliabideak.
- Azkenik, erronka-mailarik altueneko jarduerak. Ikasleei nahikoak ez diren ariketak eta informazioak aurkeztea, halako moldez non gaitasun han-

dieneoak diren ikasleak behartuta egonen baitira, nor bere kasa edo taldean, modu autonomoan informazio-iturri alternatiboetara jotzera: liburutegira, Internetera edo Nafarroako Parlamentuaren Ikasgela Birtualera, informazioak egiaztatu ahal izateko edo lanak sakontasun handiagoz egiteko. Horrekin lortu nahi da ikasleak ohitzea askotariko iturriak aintzat hartzen, erdietsi nahi duten helburuarekiko egokitasunaren arabera informazioak bereizten, iturriaren beraren egokitasuna neurtzen eta iturri horietan oinarrituz egin duten lanaren kalitatea ebaluatzen.

- Ariketaren baten eduki gisa ezartzea elkarrizketak, solasaldiak, mahai-inguruak edo hitzaldiak egitea, politikari, parlamentari, kirol-arloko zein GKE-etako liderrekin eta abarrekin. Xedea da elkarrizketa edo solasaldi horien bitartez indartzea lanarekiko ardurazko jarrerak, helburu bat lortzeko ahalegina, askatasunaren zentzua eta ezberdinak diren iritzi, izaera eta lan egiteko moduekiko errespetu eta tolerantzia.

3.2.3. Lanen aurkezpena

Ekiten ikasi beharra erronka gisa ipintzen digun gaitasuna landuz, ikasleek ariketa guztiak honelakoetan gauzatzeko aukera daukate, eskema honen bitartez:

1. hauteman.
2. adierazi.
3. azaldu.

Azaltzeko moduak:

- Idatziz, dossier edo lan-koaderno batean.
- Ikonoekin eta grafikoekin bitartez: mapak, argazkiak, panel batean egindako krokisa, irudi-liburua, eskultura eta abar.
- Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabiliz (Word dokumentuak, bideoak, PowerPoint eta abar).

Halaber, taldekako ikerketak euskarri ezberdinetan aurkez daitezke:

- DIN A3 papera, kartoi meheak, kraf paperezko tirak, itxiera-mapa konzeptualak.
- argazki-sekuentziak erakusketa baten muntaketan.
- informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabiliz (Word-en eginko txostenak, bideoak, PowerPoint aurkezpenak, webquest eta abar), Nafarroako Parlamentuko Ikasgela Birtualean jartzeko.

Ariketak «paperean» dossierretan eta koaderno tradizionaletan erabiltzearekin eta aurkeztearekin batera, beste aukera batzuk badaude, letren kultura eta kultura digitala, teknologikoa eta elektronikoa konbinatzeko.

Nafarroako Parlamentuaren Ikasgela Birtuala lagungarria da ikusizko eta informaziozko alfabetatzea bideratzeko. Bestalde, oso mesedegarria zaio Unitate Didaktikoari, ekintzetarako eta ariketak ebazteko baliabide kognitiboak, afektiboak, sozialak eta metakognitiboak lantzen dituelako. Irakasleei laguntza emanen die ikasleen gaitasunak garatzeko: taldean banaka egiten jakitearen ikuspuntutik, modu kooperatiboan; jakintzaren ikuspuntutik, informazio batzuk erabiltzea komeni delako, ikasleak zergatik eta nola erabili badakielako.

Nafarroako Parlamentuaren Ikasgela Birtualean ikaskuntzen multzo bat aurkezten da, eta hartan, gainera, Unitate Didaktikoko ariketetan eskatzen diren ezagutzak eraikitzeke trebetasunak sartzen dira. Informazio guztiek irakasleak, irakas-kuntza-ikasuntza egoerak ustiatzeko, nahita erabili ahalko duen baliabide didaktiko bat osatzen dute.

Ikasleari Ikasgela Birtualaren barruan laguntza gisa eskuratu nahi zaizkion gaitasunak lau ardatzetan bil daitezke:

1. Informazioaren tratamendu estrategikoa.

Informazioak eskuratzeko, prozesatzeko, biltegitratzeko eta komunikatzeko gaitasunei dagozkien ikaskuntzak errazten ditu. Garrantzitsua da ikasleek ohitura hartzea Nafarroako Parlamentuaren Ikasgela Birtualean jasotako datuak eta informazioak baloratzeko. Informazioen azaleko tratamendua ere saihestuko dugu, bai eta «kopiatu eta itsatsi» egiten aritzea ere.

2. Informazioa eta ezagutzak elkarrekin trukatzeko eta konpartitzea.

Kontua da beste pertsona batzuekin ezagutzak trukatzeko eta konpartitzeko izaten diren elkarreaginezko prozesuak erraztea. Ikasleek aukera dute beren ikerketak Nafarroako Parlamentuko Ikasgela Birtualean komunikatzeko eta beste ikastetxe batzuetako ikaskideekin eta taldeekin konpartitzeko: posta elektronikoa, webquesta, albiste taldeak, foroak eta abar erabiltzea.

3. Ezagutza eraikitzea eta arazoei konponbidea ematea.

Garrantzitsua da irakasleen laguntzarekin ikasleak ohitzen joatea Ikasgela Birtualak iradokitzen dituen ekintzak identifikatzen; izan ere, horiek baliagarriak izanen zaizkie Lan-koadernoko ariketetan planteatzen den ezagutza lantzen ikasteko. Laguntza eman beharko diegu trebetasun informatikoak eskuratzen ari direla kontura daitezen, eta horiek gero beste proiektu, arlo eta lan-testuinguru batzuetan erabili ahal izanen dituztela. Azken batean, estrategikoki jarduten irakasten diegu pentsa dezaten «nola jarduten duen zerbaitetan diharduenak», eta bakoitzari eginbehar bat ezagutzen hasteko, adierazteko, irudikatzeke edo azaltzeke egiten dituen urratsak zertarako balio dioten.

3.3.

Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabiltzea Nafarroako Parlamentuaren Ikasgela Birtualean

4. Informazioaren eta komunikazioaren teknologien dimentsio soziala.

Informazioaren eta komunikazioaren teknologien erabileran jarrerak eta balioak garatzen ahaleginduko gara, Ikasgela Birtualaren erabilera arduratsua eginez; izan ere, aukera ematen du informazioak, iruzkinak eta domeinu publikoko lanak modu egokian partekatzeko eta eskuratzeko. Eta bigarrenik, autoestimua eta «ongi egindako gauzetarako gustua» landuko ditugu.

Unitate didaktiko honen bitartez sakon aztertu nahi da zer den Nafarroako Parlamentua, eta zer eragin duen Nafarroako erkidegoko pertsonentzat, eta zer inplikazio eta konpromiso hartzen dituzten herritarrek demokrazian gauzatzekoa den bizi-proiektu bati dagokionez.

Helburua da ikasleek modu autonomoan Nafarroako Parlamentuari buruzko ikerketa-prozesu sinple batean parte har dezatela, Nafarroako Parlamentuko Ikasgela Birtualaren bidez. Informazioak euskarri desberdinetan irudikatzen ikastea: paperezkoak, informatikoak, irudiak eta abar. Betiere, informazio horiek Espainia, Europa eta mundu osoko beste eremu batzuetakoekin erkatuz.

Iruñera Nafarroako Parlamenturako Lan-irtenaldia egitea proposatzen da. Baliabide horrek zenbait strategiaren garapena jokoan jartzen du, honelako gaitasun eta trebetasunak sendotzeko: begiratzen ikastea, informazioak jasotzea, landa-idazpenen teknikak eta krokisak egiteko ohitura hartzea, elkarrizketak egitea, argazkiak ateratzea eta abar, eta Nafarroako Parlamentua bertatik bertara ezagut dadin erraztea.

Helburuak honakoetan gauzatzen dira:

- Σ Nafarroako Parlamentuaren Ikasgela Birtualaren bitartez, Internet erabiltzea, eta trebetasuna hartzea ideia nagusiak biltzen diren informazioak bilatzen, jasotzen eta prozesatzen jakiteko, garrantzia duena eta ez duena bereiziz.

- Informazioak prozesatzea, Nafarroako Parlamentuaren kokalekuari, eginkizunei eta jardunari buruzko sailkapenak eta analisiak eginez, bai eta eginiko sailkapen eta analisiak grafikoki eta ikonoen bidez irudikatuz. dosierak, DIN A3 formatuko liburua, Worden eginiko txostenak, webquestak, erakusketak.

- Ulermena landuz, Nafarroako Parlamentuaren edo foruen historiari buruzko zenbait testu eta iturri irakurtzea eta kritikoki aztertzea, gertakari baten zergatiak eta ondorioak bereizteko gaitasunez: problema baten aurrean proposamen eta planteamendu ezberdinak egitea.

- Taldearen baitan «lan-maketa» bat planifikatzen jakitea, ikerketa-sintesi-azalpen prozesu bat garatze aldera: «Arazo, ekintza zibiko, bizikidetasun-arazo, arazo sexista edo generoko indarkeriako arazo baten aurrean izan daitezkeen ikuspuntuak buruz ikertuko dugu eta abar» esku-argarri ditugun iturriak erabiliz: egunkariak, liburuak eta esku-orriak, Internet; kanpoko pertsonen, politikariren, GKE-er, agentziaren, Nafarroako Gobernuaren Departamentuaren edo Nafarroako Parlamentuari eginiko kontsultak.

- Σ Estimua, begirune- eta bizikidetasun-jarrerak sustatzea bizitzako ingurunerik hurbileneekin eta beste pertsona batzuekin batera erabiltzen diren baliabide eta bizimoduak dagokienez.

- Bizikidetasun-planeari eta klaseko «kontratuan» erabakitako arauak errespetatu eta betetzea, Nafarroako Parlamentuko lan-irtenaldian kontaktua daukagun pertsonekin (autobusean, kalean, Nafarroako Parlamentuan eta abarretan).

- Ikasgela Birtuala, foroak, gailu informatikoak, argazki nahiz ikus-entzunezko kamerak, lan-materialak eta erakusgailuak modu arduratsuan erabiltzea.

- Lantaldean parte hartzea eta «Ikasleen Kontseilua» izeneko txokoa sortzea, sormenezko errealizazio kiritikoekin, landutako eta ongi aurkeztutako proposamenekin; ongi aurkeztuko dira, eta gauzatu ere interesez, gustu onez eta hobetzeko asmoarekin gauzatu dira. Eginiko lanaz harro sentitzea.

- Ekintza kolektiboak (hala nola aldizkaria, dosierak, webquest-a, txostenak, lan-irtenaldia) hobetzen ikastea, horretarako oinarri gisa harturik gela osoak eginiko koebaluzioa, edo zeharkakoak diren bestelako kanpo-eragileen iradokizunak (Parlamentua, familiak, ikasleen kontseilua, Eskola Kontseilua).

Hiru eduki mota ikasiz (kontzeptuei, prozedurari eta balioei buruzkoak) eta ikerketa-proiektu txikiekin ariketak praktikan gauzatuz ahalbidetu egiten da bizitza-proiektu demokratiko bati buruzko ikasketa mamitsua egitea. Proiektu hori ikasleek herritar gisa dituzten eskubideen eta betebeharren prestakuntzari lotuta dago, bizi-proiektu demokratiko baten ikuspuntutik.

Hala eta guztiz ere, irakasleek honakoak hartuko dituzte kontuan:

- Ikaskuntza esanahidunak aurretiko ezagutzak eskatzen ditu; horrenbestez, esan daiteke ezen, ikasleak ikasteko interesa eta borondatea izan arren, muga batzuk ere izan ditzakeela, aurkezten dizkiogun edukiei buruzko egitura kognitiboan ongi antolatutako egitateen eta kontzeptuen esperientziarik ez duelako.
- Lagundu beharko diegu Lehen Hezkuntzatik ezagutzen dituzten egitateekin konektatzen, pazientzia dosi batzuekin, zeren eta garapen errealeko esparruarekin lotzea eta ezagutza horiek esanahiaren ikuspuntutik «luzatzea» nekagarria baita, eta denbora bat eskatzen duelako. Gainditzen zaila litzatekeen zailtasuna da.
- Aitzitik, abantaila handi bat ere balegoke, J. Novakek dioen bezala; alegia, «zenbat eta gehiago ikasi eta zenbat eta arlo bati buruzko ezagutza gehiago antolatu, orduan eta errazagoa izanen da arlo horretan ezagutza berriak ikastea eta erabiltzea».

Eduki kontzeptualak egituratzen dira **pertsonen** protagonismoa ardatz gisa harturik:

- Nafarroako Foru Komunitateko eta Espainiako Erresumako erakundeak, haien antolaketak eta ardurak.
- Parlamentuaren historiarekin zerikusia daukaten giza ekintzak eta gertakari historikoak.
- Gizarte demokratikoan protagonista diren eta herritartasun aktibo baterako eragile diren pertsonak.

Prozedurak, trebetasunak eta abileziak egituratzen dira **ikerketa-faseak** ardatz gisa harturik.

Jarrerak honakoetan gauzatzen dira:

- Talde-lanean materialak zaindu eta errespetatzea, lankidetasunez jardutea eta arauak betetzea.
- Internet eta Parlamentuko ikasgela birtuala arduraz erabiltzea, eta lan indibidualak nahiz talde-lanak langiletasunez eta txukuntasunez aurkeztea euskarri informatikoan.
- Herritarren eguneroko bizimoduaren alderdi zehatzak hobetzeko konpromiso pertsonalak eta taldekoak.

- Nafarroako Parlamentua kokatu eta deskribatzea.
- Hauteskuendak: Nafarroako Parlamentuaren eraketa.
- Nafarroako Parlamentuaren osaera.
- Barne funtzionamenduko arauak.
- Nafarroako Parlamentuaren eginkizunak: gobernu-jarduera kontrolatzea, legegintzakoa eta ekonomiko nahiz finantzarioa.
- Arauak eta legeak: Nafarroako Aldizkari Ofiziala eta Estatuko Aldizkari Ofiziala.
- Nafarroako Gorteen jatorria eta bilakaera.
- Nafarroako beste erakunde batzuekiko harremana.
- Espainiako beste erakunde batzuekiko harremana.
- Europako Parlamentua.
- Askatasuna, berdintasuna eta solidaritatea. Herritartasun demokratikoaz baliatzea. Giza eskubideak: gizarte anitzean komunak diren balioak.

5.1. Egitateak eta Kontzeptuak

IKUSTEN JAKITEKO gaitasunekin zerikusia dutenak:

- Zentzumen anitzeko hautematea, Nafarroako Parlamenturako Lan-irtenaldiaren bitartez erakundearen egoitzaren kanpoaldeko ezaugarriak, ingurua eta barnealdeko aretoak identifikatzera iritsi ahal izateko: sarre-
ra, Osoko Bilkura, Mahaia, Batzordeak...
- Irudiak ikustea bideoen, Ikasgela Birtualaren edo bestelako dokumen-
tuen bitartez.

5.2. Prozedurak, teknikak eta trebetasunak

DOKUMENTAZIOA ESKURATZEN JAKITEKO gaitasunekin zerikusia dutenak:

- SITNAren, hiriko planoen eta abarren bitartez kokatzea Nafarroako Parlamen-
tua dagoen lekua, bai eta inguruetakoa eraikin aipagarrienak ere (Nafarroa-
ko Gobernuaren egoitza, Baluarte, Gotorlekua, San Nikolas eliza eta abar).
- Ikasleekin adosturiko estrategia orokorrak planteatzea, Lan-irtenaldian
informazioak biltzeko: gutunen, posta elektronikoko mezuen, webgune-
en, posta-txartelen, argazkien, prentsa erabiltzearen, dokumentuak pres-
tatzearen eta abarren bitartez.
- Pertsona muntadunei elkarrizketak egitea: parlamentariak, politikariak,
herriko alkatea, kirolariak, kazetariak, aitona-amonak, zaharrak, arlo ezber-
dinetako arduradunak...
- Solasaldi edo mahai-ingururen bat antolatzea gaurkotasunezko gai ezta-
baidatsu bati buruz.
- Honakoak erabiltzea: ikasgelako eta ikastetxeko liburutegia, atlasak,
argazkiak, bideoteka eta DVDak, irakasleei laguntzeko zentroetako bali-
bideak, Nafarroako Gobernu departamentuak, Nafarroako Parlamen-
tua eta abar.

SAILKATZEN, ERLAZIONATZEN ETA ZENBATESTEN JAKITEKO gaitasunekin zerikusia dutenak:

- Lan-irtenaldian ikusitako elementuak sailkatzea, emandako irizpideei jarraituz: Nafarroako Parlamentuko eremu garrantzitsuak eta haien eginkizunak.
- Landutako kontzeptu eta prozedura batzuk sailkatu eta zerrendatzea.
- Honakoei buruzko hitz-sorta esanguratsuen panel bat antolatzea: Nafarroako Parlamentua, demokrazia, eskolako bizikidetzak, zibismoaren «10 aginduak»...

ANALIZATZEN JAKITEKO gaitasunekin zerikusia dutenak.

- Irakurketa- eta analisi-lanak, albiste, testu, grafiko eta egitate edo problemai buruzkoak.
- Lan-irtenaldian jasotako irudien analisia: argazkiak, informazio estatiko edo dinamikoak.

INFORMAZIOA GRAFIKOKI IRUDIKATZEN JAKITEKO gaitasunekin zerikusia dutenak:

- Krokisak egitea, horretarako euskarrietatik abiatuz (planoak, argazkiak, marrazkiak...), honakoei buruz: eginiko ibilbideak, ikerturiko espazioak, mapak eta abar.
- Osoko Bilkuren aretoaren irudikapen grafikoak.
- Hiru dimentsioko irudikapenak: «hautemate-kuboa», eta abar.
- Azalpen grafikoak edo ikonodunak prozesu bati buruz: «lege bat nola egingen dugun».

SINTESIAK EGIN, ONDORIOETARA IRITSI, AZALPENAK EMAN ETA PROPOSAMENAK EGITEKO gaitasunekin zerikusia dutenak.

- Itxiera/sintesi-mapak egitea, landutako alderdiak jasoko dituztenak.
- Norberaren dosierak egitea, talde-lanean irudi-liburuak prestatzea, Lan-irtenaldiari buruz edo eginiko bestelako ikerketei buruz.
- Erakusketak egitea ikerketakoak diren argazki, krokis, liburuxka, mapa, informazio, hitz-sorta eta abarrekin.
- Talde-lanei buruz lan-taldeek ahozko azalpenak ematea.
- Lan informatikoak egitea: webquest, PowerPoint, kartelak, afixak eta abar.
- Nafarroako Parlamentuko Ikasgela Birtualaren bitartez lanen berri ematea.
- Esku-hartzerako eta/edo lankidetzarako proposamenak egitea, kanpaina bat prestatze aldera, ikastetxerako, familientzat, problema bati buruzko argibideak emateko eta abarretarako.

5.3. Balioak eta jarrerak

Halaber, **ikerketa fasean** jokoan jartzen diren ahalmen eta gaitasunekin loturiko **jarre-
ra orokor eta iraunkorrak** landuko ditugu:

- Herritartasun aktibo baterako balio orokorrak: irekitasuna eta elkarrekin mintzatzea, ongiaren nozioa, guztion ongia errespetatzea, nor bere burua eta besteak errespetatzea, banakako eskubideak eta erantzukizunak, ahulenak direnentzako laguntza gisa ulerturiko justizia, egiazaletasuna eta leialtasuna.
- **Ikasten ikasteko** prozesuko balio iraunkorrak: jakin-nahi zientifikoa (jaki-teko, galdetzeko interesa...)
- Prozesuak garatzeko zorrotasuna.
- Erantzukizuna taldearekin hartutako konpromisoen (kontratuak) garapean.
- Ordena eta erantzukizuna baliabide informatikoak, liburutegia eta abarrekoak erabiltzerakoan.
- Ikuspegi desberdinak onartzea.
- Ikerketen azalpen-sintesiak zaintzerakoan eta aurkezterakoan: idatzizkoak, ahozkoak, plastikoak, ikonikoak, informatikoak eta abar, ikasgelan, korridoreetan, atarietan eta abarretan.

Halaber landuko ditugu unitate didaktiko honen lanarekin loturiko **berariazko jarrerak**:

- Ikasgelan ematen diren azalpenei, hitzaldiei eta abarri arreta jartzea... Lan-irtenaldian arreta jartzea.
- Irteeran, hitzaldi-solasaldietan, Internet erabiltzerakoan, oharrak, krokiak eta datuak kontuz hartzea.
- Besteak beste, ikasgelan, ikastetxean, garraiorako autobusean, Nafarroako Parlamentuan, etab. espazioak zaintzea.
- Elkarriketatzen ditugun pertsonen ideiekiko errespetua; izan ere, ondoko gaiei buruz egiten duten lana edo dauzkaten iritzia azalduko dizkigute: balioak, lanak, politika eta politikariak, beste pertsonetikiko harremanak, Nafarroako Parlamentuaren funtzionamendua eta abar.
- Talde bakoitzari dagozkion ikerketak egiteko informazio eta material pertsonal eta kolektiboak ekartzeko erantzukizunari dagokionez.
- Lankidetzan eta taldeko lanean, ongi egindako lanak egiteko, aurkezteko eta azaltzeko garaian.
- Norberaren eta taldearen lana auto-ebaluatzeko gaitasunean.

6. Ariketen mapa
eta garapenari
buruzko gida

Ondoko ariketen sekuentzia iradokitzen dugu. Hala eta guztiz ere, irakasleak izanen dira beren ustez behar dena egokitu eta aldatuko dutenak, taldearen eta haren interesen arabera eta lan egiteko zailtasunen eta erritmoen arabera:

IZENA	GARAPENA ETA IRADOKIZUNAK	ALDIAK. MATERIALAK ETA BALIABIDEAK
LAN-IRTENALDIA ETA GUTXIENENKO IBILBIDEA	<p>0. MOTIBAZIOA ETA AURKEZPENA.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Ikasgela Birtualaren funtzionamendua. Irteera baino lehen, Ikasgela Birtualaren euskarriari buruzko argitasunak behar dira: Informazioen aurkezpena. Funtzionamenduari buruzko azalpena. <p>Lan-koadernoa: Motibaziorako, lehendabiziko hartu-emanean ikasleak bultzatuko dira beren lanarentzako azal bat egin dezaten. Ondoren, Parlamentuaren ezagupena dela eta aurreikusi diren helburuak idatziko dira, hain zuzen ere hari buruz jakin nahi dena.</p> <p>Testu hautatuaren irakurketa. Dokumentua irakurtzen (ozenki) eta iruzkintzen hasiko gara: testu hautatua.</p> <p>Testua lehendik prestatuturiko galderen bitartez eta taldean sorturiko bestelakoen bitartez aztertuko dugu. Erantzunek jakitera emanen digute ikasleek zer dakiten Nafarroako Parlamentuari buruz, beste erakunde demokratiko batzuei buruz, bizimodu demokratikoei buruz eta abar.</p>	<p>2 SAIO Dosierra: Lan-irtenaldia eta Gutxieneko Ibilbidea</p> <p>Baliabide informatikoak Nafarroako Parlamentuaren Ikasgela Birtuala www.parlamento-navarra.es/ikasgelabirtuala</p> <p>1.0 edo 1.1 dokumentua hautatzea. Taldea handian eginiko ariketa honek aukera ematen du mapa kontzeptual baten bitartez, eskemarik gabe, ikasleek Parlamentuari buruz dauzkaten ideia zuzenak eta ideia okerrak laburbiltzeko:</p> <ul style="list-style-type: none"> · non dagoen, · zer den Parlamentua, · nola funtzionatzen duen eta · zertarako balio duen. <p>Ikasteko prozesuan, ideia okerrak zuzentzen joango gara.</p>
<p>1. AURRETIKO IDEIAK</p> <ul style="list-style-type: none"> • Testu hautatua. Bi irakurgaitatik bat aukeratu ahal da: «Martxoko idusak» «Kalias edo koldarkeria» 	<p>2. LAN-IRTENALDIA.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Informazioak jaso <p>• Lan-irtenaldia informazioak hautatzen ikasteko estrategiaren zati bat da: argazkiak, elkarrizketak, liburuxkak, espazioak eta garatzen diren eginkizunak hautematea eta abar.</p>	<p>Goizeko lanaldi bat:</p> <ul style="list-style-type: none"> · Lehenbiziko hartu-emana eta aurretiko hitzordua Parlamentuko arduradunarekin · Lan-irtenaldiari buruzko dokumentua eramatea.

IZENA	GARAPENA ETA IRADOKIZUNAK	ALDIAK. MATERIALAK ETA BALIABIDEAK
<p>3. INFORMAZIOAK PROZESATU</p> <ul style="list-style-type: none"> • Sailkatu • Aztertu <p>• Ondorioak atera eta irtenaldia baloratzea</p>	<p>Irtenaldian jasotako informazioei buruzko lana:</p> <ul style="list-style-type: none"> · Lan-irtenaldiko informazioak antolatu eta aztertuko dira. · Irtenaldiko dosieraren garapena planteatzea, banaka nahiz taldeka(*). <p>Ariketak banaka eginez gero, ikasle bakoitzak bere dosierrean islatuko ditu: Lan-koadernoa</p> <ul style="list-style-type: none"> · Ondorioak · Irtenaldiari buruzko balorazioak, autoebaluazioa eta koebaluazioa ahalbidetzeko 	<p>BI SAIO Lan-Irtenaldian jasotako informazioak prozesatzeko (*) Lana taldean egiten baldin bada, dosierreko ariketen euskarria DIN A 3ra handitzea komeni da. Honakoa beste aukera bat izan daiteke: lana tamaina handiagoko dosier baten modura (kartoi mehea) egituratzea. Ikaskide guztien artean egiten da, ekarritako irudiekin eta haietan irtenaldiari buruzko dosierreko DIN A3 erako orriak itsatsiz.</p>
<p>GUTXIENEO IBILBIDEKO ARIKETAK:</p> <p>1. ariketa. Nork osatzen du Parlamentua?</p> <p>1. ariketa. Zertarako balio du Parlamentuak?</p> <p>3. ariketa. Nola egiten da lan Parlamentuan?</p>	<p>Lehenbiziko hiru ariketek Parlamentuari buruzko oinarriko ikasketak biltzen dituzte. Ariketa horiek Irtenaldian eginiko beste batzuk osatzen dituzte.</p> <p>Honakoen bidez landu daitezke:</p> <ul style="list-style-type: none"> · Lan-irtenaldiari buruzko dosieraren bidez · Ikasgela Birtuala · Nafarroako Parlamentuaren webgunea: www.parlamento-navarra.es · Parlamentuari buruzko DVDa. 	<p>2 edo 3 SAIO, GUTXIENEO IBILBIDEKO informazioa aztertzeko</p> <ul style="list-style-type: none"> · Ikasgela Birtualean beste aukera batzuk aurkezten dira, Parlamentuarekin, Nafarroako Gorteen historiarekin, foruekin Foru Hobetzearekin eta abarrekin lotutako informazioak zabalatzeko. www.parlamento-navarra.es/ikasgelabirtuala · Nafarroako Parlamentuaren webgunean: www.parlamento-navarra.es · Parlamentuari buruzko DVDa.
<p>4. LABURBILDUZ</p> <p>4. ariketa. Zer ikasi dut Nafarroako Parlamentuari buruz?</p>	<p>4. ariketak laburbildu egiten du ikasitakoa.</p> <ul style="list-style-type: none"> · Hitz-sorta esanguratsua biltzen du: Ikasgela Birtualeko «Parliztegia» erabiltzea. · itxiera-mapa bat egin. Ikasgelan eginiko gutxieneko ibilbideko ariketetan eta Parlamentura eginiko Lan-irtenaldian landutakoa laburbilduko da bertan. <p>itxiera-mapa bukatuta, hasieran genituen alde zurretiko ideiekin alderatu ahalko dugu. Ikasi eta barneratutakoak baloratuko dira.</p>	<p>1 SAIO Honakoak egin ditzakegu: Saio bat hiztegia lantzeko eta itxiera-mapa edo amaierako txostena egiteko.</p>
<p>5. GURE BURUA EBALUATUKO DUGU</p> <p>5. ariketa. Ebaluazioa. Koebaluazioa.</p>	<p>Ebaluazioa egiten da ariketetan landutako eskumenak eta eduki oinarrikoenak menperatzen diren jakiteko. Ebaluazioak zenbait alderdi biltzen ditu:</p> <ul style="list-style-type: none"> · irakasleen balorazioak eta oharrak · ikaskuntzen balorazioa. <p>Ondokoei buruzko galde-sorta bat erabiliko da:</p> <ul style="list-style-type: none"> · Ikasgelan landutako ariketak. · banakako autoebaluazioa taldearen koebaluazioa <p>Koebaluazioak indarguneak, zailtasunak eta taldean hobetu beharreko alderdiak identifikatzen ditu.</p>	<p>1 SAIO</p>

IZENA	GARAPENA ETA IRADOKIZUNAK	ALDIAK. MATERIALAK ETA BALIABIDEAK
6. AZALDU ETA KOMUNIKATU	Azalpena eta komunikazioa Ikasgela Birtualaren bitartez bideratzen da. Izan ere, hartan ikasleen lanak ezagutzera eman ahal dira: emaitzak, balorazioak, iradokizunak, kritikak, proposamenak eta abar.	BISAIO , ondorioetarako beste bide batzuk egituratuz gero. Esate baterako: Ikasgela Birtualean PowerPoint bat, webquest bat eta abar erabiliz... Parlamentuari edo/eta landutako balio demokratikoei buruzko erakusketa bat egin, honakoekin: <ul style="list-style-type: none"> · Lan koadernoak · DIN A4, DIN A3 · Panelak · Irudien sekuentzia, iruzkinekin · Panel erako itxiera-mapa · Eskolako aldizkariak · Esloganak · Hitzaldien laburpenak, eta abar.

GUTXIENKO IBILBIDEA

o. MOTIBAZIOA ETA AURKEZPENA.	<p>Lan-koadernoak: Unitate Didaktikoko ikerketarako helburu eta arauen aurkezpena. Motibaziorako, lehendabiziko hartu-emanean eta ikasleak bultzatuko dira beren lanarentzako azal bat egin dezaten. Ondoren, Parlamentuaren ezagupena dela eta aurreikusi diren helburuak idatziko dira, hain zuzen ere hari buruz jakin nahi dena.</p> <p>Ikasgela Birtualaren funtzionamendua. Ariketak egiten hasi baino lehen, Ikasgela Birtualaren euskarriari buruzko argitasunak behar dira: <ul style="list-style-type: none"> · Informazioen aurkezpena. · Funtzionamenduari buruzko azalpena. </p>	<p>2 SAIO</p> <p>www.parlamento-navarra.es/ikasgelabirtuala</p>
<p>1. AURRETIKO IDEIAK</p> <p>• Testu hautatua. Bi irakurgaitatik bat aukeratu ahal da: 1. ariketa: «Martxoko idusak» 1.1. ariketa: «Kalias edo koldarkeria»</p>	<p>Testu hautatuaren irakurketa.</p> <p>Dokumentua irakurtzen (ozenki) eta iruzkintzen hasiko gara: Testu hautatua. Testuaren analisia, aurretik prestatuturiko galderen bitartez eta ikasle-taldearen arabera egokituz jotzen direnen bitartez. Erantzunek jakitera emanen digute ikasleek zer dakiten Nafarroako Parlamentuari buruz, beste erakunde demokratiko batzuei buruz, bizimodu demokratikoei buruz eta abar. Ariketa hau talde handian egin daiteke</p> <p>Ariketa hau jaso dezakegu mapa kontzeptual batean edo eskema batean. Bertan ikasleek Parlamentuari buruz dauzkaten kontzeptu okerrak bildu ahal dira. Oker horiekin, unitatearen amaieran, itxiera-maparekin alderatuko ditugu</p>	<p>Testu hautatua irakurtzeko, 1. dokumentua nahiz 1.1 dokumentua hautatu ahalko ditugu.</p>

IZENA	GARAPENA ETA IRADOKIZUNAK	ALDIAK. MATERIALAK ETA BALIABIDEAK
3. INFORMAZIOAK PROZESATZEA	Ariketak Nafarroako Parlamentua aztertzeke sekuentzia osoago bati dagozkio. Ikasgela Birtualean dagoen Ikaslearen Lan-koadernoan daude.	3 edo 4 SAIO Ikasgela Birtualean daude. Fotokopia daitezkeen materialak dira
· Sailkatu · Aztertu		
2. ariketa: Non dago Parlamentua?	Zenbakiekin adierazita daude: 2, 3, 4, 5, 6, 7	DVDan ere ageri dira.
3. ariketa: Nork osatzen du Parlamentua?	Ariketei ekin aurretik, informazioa emateko nahiz jarraibideak emateko testu bat irakurri behar da. Bereziki argigarriak izan daitezkeen irudi batzuk ere erantsiko dira.	
4. ariketa: Nola egiten da lan Parlamentuan?		
5. ariketa: Legegintza-eginkizuna.		
6. ariketa: Boterea kontrolatzeko eginkizuna	Irakasleek ikasleen premien nahiz interesen arabera egoki ditzakete, eta azterketa-proposamenak, sekuentziak, taldeko lana, eztabaidak, interpretazioak eta abar alda ditzakete.	
7. ariketa: Eginkizun ekonomiko-finantzarioa		
4. LABURBILDUZ	Lanak azaldu eta itxiera-mapa bat eginen da: • Irtenaldian (halakorik egin bada) landutakoa laburbilduko da • Lan-koadernoan landutako ariketen bidez ikasitako sintesia azalduko du. • Praktikan jarritako prozedurak eta trebetasunak argituko ditu.	1 SAIO
8. ariketa: itxiera-mapa		
5. GURE BURUA EBALUATUKO DUGU	<ul style="list-style-type: none"> • Ariketetan landutako gaiak ebaluatzeko aurkeztuko dira. • Ikasgelan lanak eta beren autoebaluazioa aurkeztea. • Taldeak/klaseak eginikoa taldean baloratuko da: <ul style="list-style-type: none"> · Iortutako helburuak, · aurkitutako zailtasunak eta haiek gainditzeko modua. · Indarguneak eta balizko hobekuntzak. 	1 edo 2 SAIO
10. ariketa. Ebaluazioa.		
11. ariketa. Autoebaluazioa. Koebaluazioa.		
6. KOMUNIKATUKO DUGU	Lanak bukatu ondoren, Nafarroako Ikasgela birtualean aurkez daitezke: · Webquest moduan, PowerPointen bidez, txosten batez, Irudiak bilduz (argazkiak/bideoa), eta abar Garatu beharreko dinamika eta jarraibideak ezarri ondoren, beste ikastetxe batzuetako ikasleen taldeekin lanak truka daitezke.	Komunikatzeko 2 edo 3 SAIO Ikasgela Birtuala: webquest... Lan-koadernoak: · DIN A4, DIN A3 · panelak, arbela. · Irudien sekuentzia, iruzkinekin · Foroak · eta abar.

IZENA	GARAPENA ETA IRADOKIZUNAK	ALDIAK. MATERIALAK ETA BALIABIDEAK
-------	------------------------------	---------------------------------------

SAKONTZEKO IBILBIDEA

TALDEKA IKERTZEA:

Ikasleekin egin beharreko ariketak itundu, talde bakoitzaren erritmoak eta ikasteko eta sakontzeko daukaten INTERESA kontuan hartuta. Zenbakitze bikoitzarekin adierazitako ariketak egin daitezke: (2.1, 3.1, 4.1, 5.1, 5.2, 6.1, 6.2, 6.3, 6.4, 6.5, 6.6 eta abar).

Ikertzeko modu bat

Taldean egitekoak diren ikerketak planteatzea. OINARRIZKO IBILBIDEAREN barruan irekiak eta borondatezkoak izanen dira. Erritmo aurreratua duten ikasleei eskaini ahal zaizkie.

- Haren xedea izan daiteke webquest bat, PowerPoint dokumentu bat eta abar egitea.
- Hasteko, ikerketa txiki bat eginen dugu ikasle guztiekin irakasleak «erdi lagunduta». Zenbakitze bikoitzarekin adierazitako ariketak iradoki daitezke: 2.1 ... 6.1, 6.2, 6.3, 6.4, 6.5 eta abar.
 - Abiapuntua hitzaldi-solasaldi bat ere izan daiteke, ikasleentzat kezkarri edo garrantzitsua den gairen bati buruzkoa, pertsona interesgarriren batekin: demokraziaren arazoak, indarkeria sexista, bizikidetasuna ikastetxearen esparruetan, bizi kalitatea, justizia soziala, hezkuntzaren aldeko GKE-en lana, azpi-garapena eta praktika demokratikoak, eta abar.

6 eta 8 SAIO BITARTE

Ariketa gisa, ikasgelatik kanpoko lanak iradoki daitezke.

Honakoak kontsultatzea:

- Ikastetxeko liburutegia
- Parlamentuaren Ikasgela Birtuala www.parlamento-navarra.es/ikasgelabirtuala
- Parlamentuaren webgunea
- DVDa
- eta abar.

DENA LIBRE:

Modu autonomoan ikerketa batzuk egiteko iradokizunak, ikasleen bikoteak eginez. Talde bakoitzak landuko du irakasleak iradokitako edo ikasleek eskatutako gai bat.

IKERKETARAKO ILDOAK:

- 1978ko Konstituzioaren 10. artikuluari buruz eta Giza Eskubideekin duen loturari buruz ikerketa bat egitea.
- Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoko V. kapitula ikertzea.
- Diputazioaren eta Nafarroako Parlamentuaren arteko harremanak.
- Ondokoekin zerikusia duen gai bat eztabaidatzea:
 - Bakea eta gerra: protagonistak.
 - Emakumearen aurkako indarkeria.
 - Bizikidetasuna eta aisia gazteen artean.
 - Nola egin haurren esplotazioari buruzko erakusketa bat?
 - Zer da GKE bat? Nola lagundu GKE-ei helburuak lortzen?
 - Ikastetxean/institutuan landu nahi den arazoari buruzko kanpaina bat antolatzea.

Era askotako kontsulten bitartez informazioak bilatzea da helburua, eta informazio hori antolatu eta hura islatzea euskarri informatikoan, kartoiekin, DIN A3an, liburuxka batean, posterretan, karteletan eta abarretan.

Ondokoei buruzko gaitasunak landuko ditugu: prozedurak, teknikak, gaitasunak, trebetasunak eta informazioaren eta komunikazioaren teknologien erabilera, «egiten jakitea» eta «ekiten jakitea» arloekin lotura dutenak.

Azkenean, konpromiso pertsonala eta taldearen konpromisoa ekarriko duten balioak eta jarrerak agerraraziko ditugu. Ikerketa horiek honela bukatuko dira:

- lanak ikasgelan edo ikastetxeko beste esparru batzuetan aurkeztuko dira;

6 eta 8 SAIO BITARTE

- Ikastetxeko liburutegia
- Internet
- Liburuxkak eta liburuak.
- Parlamentuaren Ikasgela Birtuala
- DVDa
- Hitzaldiak eta solasaldiak
- GKEak.

IZENA	GARAPENA ETA IRADOKIZUNAK	ALDIAK. MATERIALAK ETA BALIABIDEAK
ERAKUSKETA BAT ANTOLATUKO DUGU	<p data-bbox="660 562 1043 696">ERAKUSKETAREN EDUKIA Oinarritzko helburua da ikasgelan, korridoreetan... ikerketei, eztabaidei eta haien ondorioei eta abarri buruzko erakusketa bat prestatzea. Horretarako, taldeak antolatzen dira eta egin beharreko urratsak azaltzen dira: helburuen aurkezpena, arazoaren azterketa eta ondorioak edo sintesia.</p> <p data-bbox="660 831 1043 909">Parlamentuari edo/eta landutako balio demokratikoei buruzko erakusketak honako edukiak izan ahalko ditu:</p> <ul data-bbox="676 913 1043 1346" style="list-style-type: none"> · lan koadernoak · DIN A4, DIN A3 · Panelak · Irtenaldiari, kirol ekitaldiei, taldeko lanari eta abarri buruzko irudi iruzkinduen sekuentzia... · Panel erako itxiera-mapa · Eskolako aldizkariari buruzko artikulua · Balio demokratikoei buruzko sloganak · Hitzaldien laburpenak, eta abar · Politikarien argazkiak, elkarrizketekin · Elkarrizketak kaleko jendearekin, gazte kirolariekin, helduekin eta abarrekin. · Kontraste espazialak eta denborazkoak: balio eta praktika demokratikoak versus ez demokratikoak, eta abar. 	<p data-bbox="1091 562 1455 618">Ikastetxeko esparruak, ERAKUSKETARAKO egokiak direnak:</p> <ul data-bbox="1091 622 1455 775" style="list-style-type: none"> · Ikastetxeko atondoak · Liburutegia · Korridoreak · Ikasgela · Erabilera anitzeko aretoa · eta abar.

Adierazitako aldi-kopuruari dagokionez, ikasleen interesen eta erritmoen arabera ego-
kituko da. Printzipioz, proposaturiko programazioa garatzeko zazpi edo zortzi saio
behar dira. Laburtu edo zabaldu daiteke noski, irakasleek eta ikasleek egiten dituzten
hautuen arabera.

Hezkuntza pertsonalizatuak eta hezkuntzaren indibidualizazioak, hezkuntzarako printzipio gisa, betebeharrak hau ekartzen dute: hezkuntza prozesuak ikasleen berezitasunen eta ezaugarrien arabera egokitzea, halako moduan non aniztasunean aukeren berdintasuna eta nortasunaren guztizko garapena bermatuko baitira.

Horrek esan nahi du iradokitako ariketak **DBHko ikasleentzat egokitzea**, kontuan izanda ikasleen aniztasuna eta egokitzapen hori eginez haien gaitasunen, interesen eta igurikimeneen arabera, eta dituzten ikasteko estilo eta erritmoen arabera, baita haien jarreraren eta ohituren arabera ere.

Nafarroako Parlamentuko Ikasgela Birtualaren erabilerari buruz, ikasleekin esku hartzeko hiru aukera aurkeztu dira.

7.1. Erritmo mantsoagoa daramaten ikasleak

Erritmo mantsoagoa duten (hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleak), hezkuntza sisteman berandu sartu diren edo/eta premiako egoera soziokulturean dauden ikasleei laguntzeko, **Oinarrizko Ibilbideko** ariketa batzuk (bi edo hiru) aukeratzea gomendatzen dugu, betiere irakaslearen irizpidearen arabera. Kasu batzuetan, beharrezkoa izanen da irakasle espezialistaren ebaluazioa eta esku-hartzea.

Informazio eta irakasleak **gidaturiko ariketa** batzuk, **talde handian** egitekoak, egokiagoak dira haiek ikasteko. Esate baterako: testu hautatuari dagozkionak.

Bereziki, Lan-irtenaldia prestatzeko ariketak iradokitzen ditugu, bai eta Nafarroako Parlamentuaren eta haren ingurunearen irudiak hartzeko bidea ematen dutenak ere. Lan-irtenaldiaren ondoren, komentatutako irudien sekuentzia ordenatu bat aurkeztu ahalko dute, «argazki-oinekin», edo kartel bat egin ahalko dute, oinarrizko galdera batzuei erantzuten diena:

- Non dago Nafarroako Parlamentua?
- Nork osatzen du Nafarroako Parlamentua?
- Zertarako balio du Nafarroako Parlamentuak?
- Zein dira herritartasunerako oinarrizko balio demokratikoak?

7.2. Sakontzeko aukera duten ikasleak

Gaitasun handiko ikasleei arreta egiteko neurri gisa, **Sakontzeko Ibilbidea** proposatzen dugu —hain zuzen ere, ariketetan 2.1, 3.1, 4.1, 5.1, 6.1 zenbakiekin adierazitakoak—.

Halaber, aukera eman dakieke **Ilerketa** ariketak egiteko: adibidez, «DENA LIBRE» izenekoan adierazitakoak edo ikasleekin adostutako beste batzuk. Kontua da ikasleek informazioak bilatzea eta haiek euskarri informatikoan, kartoi mehean, DIN A3an edo liburuxketan antolatu, aztertu eta islatzea, ikasgelako gainerakoei erakusteko, ikastetxeko aldizkarian jasotzeko edo ikastetxeko panel eta erakustokietan erakusteko.

Betiere, irakasleak izanen dira irakaskuntza-ikaskuntza prozesuetako zailtasun puntualak edo/eta laguntza-premiak antzemanen dituztenak, ariketa ikasleei egokitzen saiatzeko dituztenak. Irakasleak dira talde osoarentzat ikaskuntzaren gutxieneko helburuak betetzea bermatuko dutenak.

Ebaluazioak, oro har, proposaturiko eskumenen, helburuen eta edukien garapenean ezarritako irizpideen arabera egingen dira:

- Informazioak iturri desberdinetatik ateratzea, datuak eta iritziak bereiziz eta arazo sozial edo politiko bat edo eskolako nahiz gizarteko bizikidetasunaren arabera arazo baterako interpretazioak edo konponbideak aitortuz.
- Informazioak antolatu eta sailkatzea ezarritako irizpideak erabiliz.
- Nafarroako eta Espainiako gobernuen erakundeen antolaketa ezagutzea.
- Nafarroako Parlamentuaren eginkizun nagusiak identifikatzea.
- Nafarroako Parlamentuaren eta Nafarroako foruen historiako une garrantzitsuenetako batzuk adieraztea.
- «Lege baten prestaketari» buruzko prozesuak sekuentzia kronologikoen arabera deskribatu, analizatu eta interpretatzea.
- Nafarroako, Espainiako eta Europako parlamentuen kokapenari buruzko eskalak, neurri eta zenbatespenen aplikazioa inplikatzeko duten gaien arabera mapak eta krokisak egin eta interpretatzea.
- Internet eta Nafarroako Parlamentuaren webgunea erabiltzea, ariketak azaltzeko eta irudikatzen behar den informazioa lortzeko.
- Posta elektronikoa edo bestelako tresna informatikoak erabiltzea Nafarroako Parlamentuari, talde politikoei edo beste kolektibo batzuei buruzko informazioa elkarrekin trukatzeko.
- Testu prozesadore batekin eginiko lanak eta proiektuak egitea eta aurkeztea, proposatutako ikerketa gaietako bati buruz.
- Herritarren, ongizatearen, bizi kalitatearen eta abarren kontzeptuak eta arazoak ezagutzea... haurraren giza eskubideekin loturiko beste esparru batzuetan oinarritutako direnak.
- Ikerlanak egitea partaidetza demokratikoaren kontzeptuei eta arazoei buruz.

Bestalde, ikerketa laneko prozesuari dagozkion **banakako eta taldeko jarrerak** ebaluatuko dira.

- Jarrera positiboa eta interesa taldeko lanarekiko.
- Arreta jartzea ikasgelako azalpenetan, Nafarroako Parlamenturako Lan-irtealdian, hitzaldietan eta eztabaida gaietan.
- Irteeran, hitzaldi-solasaldietan, iturri dokumentaletan, Internet erabiltzerakoan, oharrak, krokisak eta datuak kontuz hartzea.
- Erabilitako espazioak eta materialak errespetatu eta zaintzea: informatika aretoa.
- Besteen ideiekiko errespetua: ikastetxean gurekin dauden pertsonak, gure lanetarako azalpenak eta orientabideak ematen dizkigutenak, familian entzuten eta arreta ematen digutenak, kalean gurekin dibertitzen direnak, lan egiten dutenak, erkidegoaren zerbitzuan daudenak eta abar.
- Ordena eta erantzukizuna baliabideen erabileran: liburuak, atlasak, planiak, CDak, ordenagailuak eta abar.
- Zorroztasuna informazioak bilatzerakoan eta lan prozesuak garatzerakoan.

- Arazo edo eztabaidagai bati buruzko ikuspuntu ezberdinak onartzea.
- Sentsibilizazioa demokrazian elkarrekin bizitzearekin loturiko arazoei buruz, tolerantziari buruz eta arraza edo sexuarengatik desberdintasunik egin gabe besteak errespetatzeari buruz. Baliabiderik eta hezkuntzarik ez duten pertsonetikiko eta lurraldeekiko konpromiso sozialak (elkartasuna) onartzeko gaitasuna: «Globalki pentsatu eta tokian aritu».

HASIERAKO EBALUAZIOA

Ondoko alderdiak baloratuko dira:

- Gaiari buruzko ezagutza maila: Nafarroako Parlamentuari buruzko galdera hauek: zer, nor, nola, non, zertarako.
- Trebetasun eta teknika informatikoak menperatzea.
- Ikertzeko jakin-mina eta nahia.

HASIERAKO EBALUAZIORAKO TAULA

IKASLEAK	Nafarroako Parlamentuari buruzko aurretiko ezagutzak				Nafarroako Parlamenturako irtenaldiari buruzko jarrera eta jakin-mina				Trebetasun eta teknika informatikoak menperatzea			
	Gutxi	Nahikoa	Ongi	Oso ongi	Gutxi	Nahikoa	Ongi	Oso ongi	Gutxi	Nahikoa	Ongi	Oso ongi
1.												
2.												
3.												

PROZESUAREN EBALUAZIOA

Honakoak dira baloratzen diren alderdiak:

- Lanean inhibitzea /lanean parte hartzea /lankidetzan jardutea.
- Originaltasuna eta espirtu kritikoa.
- Aztertutako egitateak ikertzeko jarrera positiboa.
- Lanarekiko erantzukizuna eta materialen eta baliabideen zainketa.

PROZESUAREN EBALUAZIORAKO TAULA

IKASLEAK	Parte-hartzea eta erantzukizuna				Originaltasuna eta espirtu kritikoa				Ikerketarako eta erantzukizunak hartzeko jarrera			
	Gutxi	Nahikoa	Ongi	Oso ongi	Gutxi	Nahikoa	Ongi	Oso ongi	Gutxi	Nahikoa	Ongi	Oso ongi
1.												
2.												
3.												

AMAIERAKO EBALUAZIOA

Honakoak dira baloratzen diren alderdiak:

- Egitateen eta kontzeptuen ezagutza: zer den Nafarroako Parlamentua; nork osatzen duen Nafarroako Parlamentua. Nafarroako Parlamentuaren eginkizunak.
- Nafarroako Parlamenturako Lan-irtenaldian egindako ikerketa-lana eta jasotako datuak.
- Lan-koadernoaren bitartez proposaturiko ariketei edo proiektuari buruzko ikerketa lana.
- Proposaturiko prozeduren garapen maila, bereziki ordenagailua erabiliz.
- Ikasgela Birtualaren erabilera.
- Taldeko lanaren balorazioa: plangintza, garapena, arazoei konponbidea ematea eta esku-hartzerako proposamenak.
- Banakako nahiz taldeko lanak eta esku-hartzeak ikasgelaz bestelako inguruneetan: komunikazioa eta azalpena.

AMAIERAKO EBALUAZIORAKO TAULA

IKASLEAK	Nafarroako Parlamentuari buruzko ezagutzak, egitateak eta kontzeptuak				Prozedurak eta trebetasunak garatzea: Lan-irtenaldia				Ikerketa eta lan sekuentzia: Gutxieneko Ibilbidearen analisia eta sintesia				Irizpen orokorra: • Ikasgela Birtualaren erabilera • Amaierako aurkezpena			
	Gutxi	Nahikoa	Ongi	Oso ongi	Gutxi	Nahikoa	Ongi	Oso ongi	Gutxi	Nahikoa	Ongi	Oso ongi	Gutxi	Nahikoa	Ongi	Oso ongi
1.																
2.																
3.																

9.1. Nafarroako Parlamentuaren txokoa

Ikasleen kontsultak eta informazioen bilaketa arinak bideratzeko, ikasgelan ondoko baliabideak izanen dituen liburutegia izatea proposatzen dugu:

- DVD bat, ondoko edukiekin:
 - Unidate Didaktikoak
 - Irakasleentzako Gida
 - Ikaslearen Lan-koaderno
 - Lan-irtealdia
 - Bideoak.
 - Ikasgela Birtualaren aurkezpena. Elena Torres Miranda, Nafarroako Parlamentuko lehendakaria
 - Ibilaldi bat Nafarroako Parlamentu Birtualean
 - Komikiak
 - Nafarroako Parlamentuaren historia
 - Parlamentuaren funtzionamendu eta organoak
 - Nola egiten da lege bat?
 - Parlamentuaren eta Nafarroako Gobernuaren arteko harremanak
 - Infografiak
 - Nola egiten da lege bat?
 - Nafarroako Parlamentuaren kokapena
 - Nola hautatzen da Nafarroako Parlamentua?
- Nafarroako Parlamenturako Lan-irtenaldia.

9.2. Informazio-sareak

Webgune aipagarriak eta sailkatuak, iruzkin laburrekin: Europako Parlamentua; Espainiako Gorte Orokorrak; autonomia erkidegoetako parlamentuak; Nafarroako Parlamentua; Nafarroako Gobernua; Nafarroako Arartekoa; Comptos Ganbera, eta abar.

www.parlamento-navarra.es

Nafarroako Parlamentuaren webgune ofiziala, gaztelaniaz, euskaraz, ingelesez, frantsesez eta alemanez. Bideo emanaldien atalean (Bideoak) azken urteetako Osoko Bilkuren edo batzordeen grabazioak gordetzen dira. Zuzenean sar daiteke, orri horretatik, Osoko Bilkurak edo batzordeak ikustera. «Agenda» atalean, parlamentuan epe laburrean egin beharrekoen zerrenda ageri da. «Grabazioen bilaketa» atalean, interesatzen zaigun gaiari buruzko bilaketak egin ditzakegu, oinarritzko hitzak abiapuntu hartuta.

www.parlamento-navarra.es/euskara/boletines.asp

Nafarroako Parlamentuaren webgunea da hau.

http://www.ayuntamiento.es/comunidades_foral_de_navarra.php

Gaztelaniaz, euskaraz eta ingelesez dago Iruñeko Udalak babesturiko webgune hau. Iruñeko Udalak babestutako webgunea da. Nafarroako Foru Komunitatearen ikuspegi orokor bat eskaintzen digu, historiaren eta geografiaren bitartez. Nafarroako armarría eta bandera bezalako irudiak ere baditu, bai eta Nafarroako Parlamentuaren kanpoaldeko argazkia ere.

www.pamplona.net

Iruñeko Udalaren orria. Orrialde nagusian Hiria aukeratzen badugu, kale izendegira sartuko gara eta horrekin Nafarroako Parlamentua plano batean kokatu ahalgo dugu. Horretarako, inguruko kaleetako bat adierazi beharko dugu; esate baterako, Sarasate pasealekua, edo Parlamentuaren egoitza dagoen helbidea bera, Navas de Tolosa 1.

<http://www.pamplona.net/verPagina.asp?idPag=141&idioma=2>

Iruñeko Udalaren orria. Nafarroako Parlamentuaren kanpoaldeko argazki bat dauka, bai eta eraikinaren eta bere erabileraren historia labur bat ere.

<http://www.juntaelectoralcentral.es>

Espainiako Hauteskunde Batzorde Zentralaren webgune ofiziala. Gure herrialdeko hauteskunde prozesu guztiak zaintzen dituen erakundea da. Orri horretan Espainian izandako hauteskunde guztietako emaitzak aurkituko dituzu: udal hauteskundeak, autonomikoak, orokorrak eta Europako Parlamenturakoak. Haiei buruzko arauak ere bertan daude jasota. Lehendabiziko orriaren bukaeran, «Todas las elecciones» izenburuko atal bat dago. Atal horretara sartzean, hauteskunde autonomikoetan, Nafarroako Parlamenturako hauteskundeak aurkituko dituzu, 1983tik hasi eta 2007ra arte.

<http://www.coprepa2008.es/default.aspx?tip=f&sub=mca&id=13&mn=1>

Madrilgo Asanblearen (Parlamentua) orria. Ikuspegi labur bat eskaintzen du, Espainiako autonomia erkidego guztietako parlamentuen irudiekin.

http://es.wikipedia.org/wiki/Parlamento_de_Navarra#Funciones

Wikipedia entziklopedia librearen orria. Nafarroako Parlamentuari buruzko ikuspegi bat eskaintzen du. Esteka ugari ere eskaintzen du —urdinez dauden hitzak—, seinalatutako hitzera joan ahal izateko. Esteka horien artean, nabarmentzekoak dira honakoak: Foru Hobetzea, Foruak aldatzeko Legea, Espainiako 1978ko Konstituzioa, Nafarroako Parlamenturako hauteskundeak, eta abar.

http://es.wikipedia.org/wiki/Presidente_del_Gobierno_de_Navarra#Modo_de_elecci.C3.B3n

Wikipediaren orri hau Nafarroako Gobernuaren lehendakariari buruzkoa da. Zenbait atal eskaintzen ditu, non argitzen baita Nafarroako Parlamentuaren egitekoak zein diren; esate baterako, Nafarroako Gobernuaren lehendakaria bera hautatzea: Modo de elección, Pleno del Parlamento, Pasos para la elección.

http://www.solidaridad.net/_articulo5012_enesp.htm

http://www.reporterodigital.com/pamplona/post.php/2007/06/15/icuanto_cobrarán_los_parlamentarios

Orrialde horietan ikus daiteke Nafarroako parlamentariak zenbat kobratzen duten, bai eta parlamentu-talde nafarrek 2008an kobratu dutena ere.

http://www.Navarra.es/home_es/Navarra/Instituciones/Elecciones/Elecciones+Parlamento/
Nafarroako Gobernuaren orria. Nafarroako Parlamenturako 2007ko hauteskunde-emaizak eskaintzen ditu, eta lau alderdiri buruzko erantzunak ematen ditu. Halaber, honakoei buruzko informazioa ematen du: hauteskunde araudia (prozedura, ahalduak, boto-zenbaketa...), nola bozkatu (arau orokorrak eta posta bidezko botoa), hautestontziak eta hauteskunde-txartelak eta maiz eginiko galderak.

<http://narros.congreso.es/constitucion/>

Diputatuen Kongresuaren orria. Honakoei buruzko atalak dauzka: Espainiako Konstituzioa, autonomia estatutuak, udal hauteskundeak, hauteskunde autonomikoak eta orokorrak, konstituzio-organoak, iraganeko Espainiako beste konstituzio batzuk eta munduko beste konstituzio batzuk. Gazteentzako eremu bat badago, non Konstituzioak zer esan nahi duen eta zertarako balio duen azaltzen baita. Eta haren barruan, beste atal batzuk ere badaude; esate baterako, autonomia erkidegoak nola sortzen diren eta zertarako, eta zer egiten duten.

http://www.elpais.com/articulo/espana/socialista/navarra/Elena/Torres/elegida/Presidenta/Parlamento/votos/UPN/elpepuesp/20070620elpepunac_1/Tes

Nafarroako Parlamentuko oraingo lehendakaria hautatzeko prozesuan jasotako babesak laburbiltzen dituen artikulua. Irudiak eta 51 segundoko bideo labur bat ere jasotzen ditu.

<http://recursos.pnte.cfnavarra.es/~mzubicob/parlana2007.htm>

Nafarroako Parlamentuko lehendakaria, Elena Torres, eta Nafarroako Parlamentuko lehendakariordeak, nola hautatu zituzten laburbiltzen duen artikulua.

<http://actualidad.terra.es/articulo/html/av21655658.htm>

Nafarroako Parlamentuko lehendakari Elena Torresen hautatzeari buruzko artikulua.

http://www.elpais.com/articulo/espana/Miguel/Sanz/reelegido/presidente/Navarra/mayoria/simple/elpepuesp/20070811elpepunac_10/Tes

Miguel Sanz 2007ko abuztuaren 11n Nafarroako Gobernuko lehendakari hautatzeari buruzko artikulua.

<http://www.adn.es/politica/20070811/NWS-0898-Navarra-Miguel-Sanz-regionalista-presidente.html>

Miguel Sanz 2007ko abuztuaren 11n Nafarroako Gobernuko lehendakari hautatzeari buruzko artikulua.

<http://recursos.pnte.cfnavarra.es/~mzubicob/cortnav.htm>

Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuaren webgune ofiziala. Antzinako Nafarroako Gorteen historia laburra, sortu zirenetik hasita. Haien eginbeharren, funtzionamenduaren eta osaketaren azalpenak.

http://eu.wikipedia.org/wiki/Nafarroako_Gortek

Wikipedia entziklopediaren orria, antzinako Nafarroako Gorteen ikuspegi historiko bat ematen duena.

<http://www.parlamento-navarra.es/castellano/contratos/2001/sondeo.pdf>

2001eko Nafarroako Parlamentuari buruzko azterlana:

Fitxa teknikoa | II. Nafarroaren egoera | III. Nafarroako erakundeen eta liderren jardura | IV. Nafarroako autonomiari buruzko balorazioa | V. Gaurkotasuneko gaiak.

<http://www.parlamento-navarra.es/castellano/noticias/PresEncuesta2006.pdf>

2006ko Nafarroako Parlamentuari buruzko azterlana:

Fitxa teknikoa | II. Nafarroaren egoera | III. Nafarroako erakundeen eta liderren jardura | IV. Nafarroako autonomiari buruzko balorazioa | V. Gaurkotasuneko gaiak | VI. Nafarroako Parlamenturako hauteskundeetako boto-asmoa

http://www.cis.es/cis/opencms/-Archivos/Marginales/2480_2499/2495/Es2495mar.pdf

CISek hauteskundeen aurretik eginiko azterlana. 2003ko udal hauteskundeak eta hauteskunde autonomikoak egin aurretiko azterlana. Nafarroako Foru Komunitatea. 2003ko martxoa-apirila

<http://www.kinderrechencommissariaat.be>

Giza eskubideei eta haurren eskubideei buruzko webgunea. Haurren eskubideei buruzko informazioa topa daiteke. Eskubide horiek urratuz gero, laguntza bila nora jo daitekeen ere jasotzen du.

<http://www.unesco.org>

Eskolako indarkeriari buruzko Europako Behatokia.

<http://www.annefrank.nl>

Arrazakeriaren eta xenofobiaren aurka borrokatzeko orria. Anne Frank fundazioak aukeren berdintasuna lantzeko material pedagogikoak eskaintzen ditu.

<http://www.eun.org/myeurope>

Gazteen Ahotsen bitartez, etorkizunari buruzko eztabaidak bideratzen dira: haurren eskubideak nola babestu: bakean bizitzeko eskubidea; ur edangarria izateko eskubidea; bizitoki duin bat izateko eskubidea; jolasteko eskubidea; osasuntsu eta ongi elikaturik egoteko eskubidea; eskolara joateko eskubidea; eta indarkeriaren, abusuaren eta esplotazioaren aurka babestuta egoteko eskubidea.

EUROPAKO PARLAMENTUARI BURUZKO INFORMAZIOA

<http://europa.eu.int>

Irakasleak ikasleei informazioa eman nahi badie Europako Parlamentuak Bruselan duen funtzionamenduari buruz, Europar Batasunari buruzko informazio bulegoetara jo dezake.

http://europa.eu/abc/12lessons/lesson_9/index_es.htm

Europar Batasunaren Oinarrizko Eskubideen Gutunak Europar Batasunaren funtsezko balioak definitzen ditu, bai eta Europar Batasuneko herritarrek duintasuna, askatasuna, berdintasuna, elkartasuna, herritartasuna eta justizia direla-eta dauzkaten eskubide sozial, politiko, ekonomiko eta sozialak ere.

Nafarroako Parlamentuari, foruei, erakundeei eta Nafarroako historiari buruzko bibliografia

IRAKASLEENTZAT

- El Parlamento o Cortes de Navarra*. Argitaratzearen eta banatzearen arduraduna: Nafarroako Parlamentuko Argitalpen Zerbitzua. 1989.
- Nafarroa, Foru Komunitatea. Nafar foruaren historia eta egungo baliotasuna*. Hezkuntza eta Kultura Departamentua. 1999.
- Nafarroako historia: mendeetan zehar landutako identitatea*. Luis Landa El Busto. Hezkuntza eta Kultura Departamentua. 2000.
- Navarra-Historia*. Fermín Miranda García. Nafarroako Gobernua. 2002.
- Nafarroako Parlamentua*. Argitaratzea eta banaketa: Nafarroako Parlamentuaren Argitalpen Zerbitzua. 2003.
- Nafarroa, Foru Komunitatea*. Nafarroako Parlamentua. CD euskarrian. Argitaratzea eta banaketa: Nafarroako Parlamentua. 2003.
- El Régimen Foral de Navarra*. Francisco Javier Enériz Olaechea. Nafarroako Gobernua. 2007.
- Nafarroako Parlamentuko Erregelamendua*. 2007.
- Nafarroako Parlamentua*. Nafarroako Parlamentuak zabalkunderako argitaraturiko esku-orria. 2009.

ARRAZAKERIA ETA KULTUR ARTEKOTASUNA

Webguneak

<http://www.pangea.org/directori/indexes.html>

<http://www.fuhem.es/CIP/EDUCA/portada.htm>

<http://www.edualter.org/material/ejido/>

IKASLEENTZAT

- El Parlamento o Cortes de Navarra*. Nafarroako Parlamentuak argitaraturiko komikia. 1985.
- Navarra*. José Ignacio Juanbeltz Martínez Rubén Riancho Andrés. Bibliograf. Bartzelona. 1994.
- Nafarroa, Foru Komunitatea. Nafarroako Parlamentua*. CD euskarrian. Argitaratzea eta banaketa: Nafarroako Parlamentua. 2003.
- Nafarroako foruak, atzo eta gaur*. Hezkuntza Departamentua. 2004.
- Nafarroako sinboloak*. Curriculumak Diseinatzeko eta Garatzeko U. T. Hezkuntza Departamentua. 2004.
- Nafarroako foruak eta instituzioak*. Curriculumak Diseinatzeko eta Garatzeko U. T. Hezkuntza Departamentua. 2004.

Nafarroako foruak atzo eta gaur. Nafarroako Gobernua. 2007.
Amejoramiento del Fuero de Navarra. 1982-2007. Nafarroako Gobernua. 2007.
Nafarroako Parlamentua. Nafarroako Parlamentuak zabalkunderako argitaraturiko esku-orria. 2009.

BALIOAK ETA BIZIKIDETASUNA

Bases de una Educación para la Paz y la Convivencia. José Luis Zurbano Díaz de Cerio. Hezkuntza eta Kultura Departamentua. 1999.
La democracia y sus retos en el siglo XXI. Elementos para la formación democrática de los jóvenes. Montserrat Casas. Joan Botella. Cisspraxis argitaletxea. Bartzelona. 2003.
Educación en la ciudadanía. Perspectivas feministas. Rosa Cobo eta beste. Arg.: Los libros de la Catarata. 2008
Ochenta actividades para educar lúdicamente en valores y ciudadanía. José Escudero Pérez y Luz Martínez Ten (coords.). Arg.: Los libros de la Catarata. 2008



PARLAMENTO DE NAVARRA
NAFARROAKO PARLAMENTUA